

DATORRENA

Beren onena eman dutenen
alde, gaur eta beti IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Eraiki, kontatu eta gogoratu beharreko
egun handia da MIKEL ZUBIMENDI > 11

2017ko apirilaren 8a | XI. urtea • 513. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZORTZI AULKI ETA TXAPEL BAT ANAITASUNAKO OHOLTZAN

ASTEBURUA BEREZI DATOR, BEGIAK BAIONAN ETA PAUSOA KORRIKAN. NAFARROAKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO ZORTZI FINALISTEK OLATU HORIEN ARTEAN JOSI BEHARKO DUTE GAUR
ARRATSALDEAN IRUÑEKO ANAITASUNA KIROLDEGIAN JOKATUKO DEN SAIOA. HERRI BATEN EMOZIO
DESBERDINAK BATUKO DITUEN FINALA IZAN DAITEKE. > 12

Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



«Neke demokratikoaren
sindromea». Bozketaz ala
zozketaz? 04

Zenbat kobratzen dute zakurrek
Errumanian? 08

Nafarroako Bertsolari Txapelketa
asteburu berezian 12

Lorezaintza ekologikoa, osasuna
hobetu eta herria edertzeko 22

Sukalde bat herriarentzat 27

In fraganti: Iñaki Gonzalez-Oribe 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Beren onena eman
dutenen alde, gaur eta beti
- 10 **Oier Gorosabel:** Hazi-minak
- 11 **Mikel Zubimendi:** Eraiki,
kontatu eta gogoratu beharreko
egun handia da
- 20 **Gaizka Amondarain:** Emak
Bakia
- 21 **Garazi Goia:** Seriotasun ezaz
- 24 **Unai Iturriaga**
- 26 **Saioa Iraola:** Ni (gu) ere
bakegile
- 26 **Joxean Agirre:** Ispiluak
- 31 **Ana Elozegi:** Bizitzaz blai,
gazteen eta abiaduraren arteko
harremana hizketagai



{ datorrena } Iñaki Soto

Beren onena eman dutenen alde, gaur eta beti

Alea jacta est. Hau irakurtzen duzunerako mila-ka euskal herritarrek beren onena emango zuten gaurko eguna, 2017ko apirilak 8, Euskal Herriko historia garaikidean mugarri izan dadin. Datozen belaunaldien bizipen politikoa zeharo aldatuko duen urrats baten aurrean gaude. Egia da beste milaka pertsona batzuk, zenbait ofizioz eta beste hainbat bokazioz, aurrekoek beren onena ematearen ondorioak murrizten saiatu direla, baita azken unera arte saiatu ere. Gertatzen dena gertatzen dela, hein handi batean lehendabizikoek irabazi dutela esango nuke.

Egunak "istripurik" gabe aurrera egin ote duen jakin gabe zerbait gehiago esatea arriskutsua izan arren, orain arteko gertaeren segidak badu irakaspen soziopolitiko sakonik euskal herritarrontzat. Orokorrean, ETaren determinazioak, nazioarteko komunitatearen babesak, gizarte zibilaren konpromisoak eta euskal instituzioen akonpainamenduak estatuen blokeoa hautsi du. Jokabide komun eta aldi berean anitz horrek, batez ere, euskal gatazka usteltzen uztearen estrategia garaitu du. Irabazle eta galtzaileen logika apurtu du eta umiliazioaren tentazioa mugatu du. Errelatoen gudan oreka sartu du eta emozioen batailan aukera berriak ireki ditu. Adi, politikan ohikoa denez, gaur eta gaurtik aurrera egiten denaren arabera emaitza politikoa bat edo bestea izango da.

Nire ustez, emozioen bataila determinantea da egun. Baionako zita zentzu horretan oso garrantzitsua da. Herri kontraesankorra gara, benetan. Hamarkadetan egun honekin amesten zutela etengabe esaten zutenek ez omen dute gaurkoa ospatzeko asmorik. Beren burua "protagonista" izendatzen dute, ez agertzeko mehatxua egiten duten bitartean. Erridikulua? Ikusiko dugu. Gertaera hau beste era batera imajinatzen genuenetatik askok, ordea, ez dugu apenas lorik egin, ziur asko ez bart ezta aurreko gauetan ere. Urduri gaude, pozik gaude. Norbera bere umoreen jabe da, jakina. Loarena konplikatuagoa da, besteen umoreak zurea alda dezake-eta, lo egiten ez uzteraino. Kontzientzia lasai dugu, ordea. Onena eman dugu.

Azken urteetako prozesu honetan enpatia landu dugu. Era batean edo bestean, hori lantzeko helduen ikastolara bueltatu gara. Ikastolan funtsezko gauzak ulertzen dira. Horiek ahaztu dituztenek hobe lukete handik buelta bat emate

tea. Besteen tokian jartzeko esfortzua egin dugu, eta halaxe egiten dugu gertaera bakoitzaren aurrean.

Kasu honetan, egoera kontrakoa balitz nola sentituko nintzatekeen asmatzen ahalegindu naiz. Adibidez, bihar EAJk eta PPk euskal preso politikoen dispartzioarekin amaitzea adostuko balute, nola sentituko nintzateke ni? Urkulluren Gobernuak hainbat karguk erakusten duten amorru edo ezinegon kontrolaezina sentituko nuke? Ez dut uste, benetan. Ospatuko nuke. Madrilen PPk eta PSOEek indar polizialen atzera-egitea erabakiko balute, nik ETaren armagabetearen harira PPkoek adierazten duten ernegazioa biziko nuke? Ezetz uste dut. Edonola ere, ikuspuntu politiko batetik, emozio horiek kontrolatzen ahaleginduko nintzateke. Inteligentzia politikoagatik, besterik ez bada ere. Hori guztia, obsesio egotista batek bultzatuta nire helbururik behinena maila politiko orokorra jaitsi eta gure gizartea mediokritatean instalatzea ez balitz, jakina.

Gizarte zibilaren konpromisoak, ETaren determinazioak, nazioarteko eragileen babesak eta euskal instituzioen akonpainamenduak, jokabide komun eta aldi berean anitz horrek, blokeoa garaitu du

TRANSMITITZEKO GAITASUNA, TRANZENDITZEKO BORONDATEA

Gertatu dena jakin gabe, zaila da zerbait esatea. Ezer ez esatea bekakua litzateke, ordea. Guk, GARA Taldeko komunikabideok eta lankideok, gaur dugun helburua argia da: eginga dakoari balioa eman nahi diogu, euskal gizarte zibilaren parte ere bagaren heinean, zintzotasun iraultzailez, ofizioak exijitzen duen profesionaltasunaz, buruz eta bihotzez, artisauei esker onez eta artistaren laguntzaz, gertatu denaren eta irekitzen diren aukeren dimentsioa transmititu nahi dugu. Hitzez, irudiz eta ahotsez, une zehatza transzenditu eta belaunaldien tamainako une historikoa islatu nahi dugu.

Konpromisoa, ardura, zintzotasuna, kideotasuna, sakrifizioa, gizatasuna... ikastolan ez ezik borrokan ere ikasten dira. Kazetaritza, gure komunitatearen laguntzaz, herri honen alde beren onena eman dutenei, artisauei eta beste guztiei, gure babesa adierazi nahi diegu. Gaur eta beti. •

BOZKETAZ ALA ZOZKETAZ?

«Neke Demokratikoaren sindromea», hauteskundeen fundamentalismoa eta demokrazia gaixoaren sintomak

📁 POLITIKA / Mikel Zubimendi Berastegi

Obeditzeko ez, baina jende guztia agintzeko prest dago en mundu petral honetan, bada sukar handi bat sintomaz beterikoa. Zientzia medikoak oraindik aztertu ez duen arren, zientzia politikoetan gero eta arruntago bihurtzen ari den fenomeno kutsakorra da. “Neke Demokratikoaren Sindromea” deitu zaio. Oraindik ez da erabat deskribatu, baina mendebaldeko gizarte eta, hein batean, antolakunde politiko gehienak pairatzen ari diren desordena arriskutsu gisa definitu daiteke.

Hauteskundeak eta demokrazia sinonimo eginda, bozketen fundamentalista bilakatu gara. Gurtu egiten ditugu, eta, gero, sarritan, hautatu den jendea mespretxatu. Integrisimo mota berri bat da: hauteskunderik gabeko demokrazia ezin da pentsatu ere egin, (barne) demokraziaz hitz egiteko nahitaezko baldintza da. Bere baitan helburu, doktrina ebanjeliko berri eta globala bilakatu da.

Histeria kolektibo honek ondorio latzak ditu demokraziaren funtzionamenduan. Efizientziak hauteskunde kalkuluaren aurrean asko sufritzen du. Legitimitateak, politikan ezinbesteko egin den nabarmenkeriaren aurrean, berdin. Interes komunak eta epe luzeak galdu egiten dute alderdi interesen eta berehalakotasunaren aurrean. Hurrengo hauteskundeak irabaztea aurrekoetan egindako promesak betetzea baino inportanteagoa da. Hauteskundeak demokrazia posible egiteko asmatu baziren, egungo egoeran traba argia dira.

Bozketa, erreferendum eta parte-hartzearen fundamentalismoak ortodoxia sortu du. Eta kristautasunaren aurrean satanistek bezala, beren janzkera eta erritualekin, ortodoxia horrek baditu heterodoxoak. Eta heterodoxo guztietan bizi denez ortodoxo potentziala, demontrea bada, bai.

Fundamentalismo horren mugak ikusgarriak dira, bestalde: bozketak noizean behin bakarrik gertatzen dira, gober-

Brexita edo Trumpen garaipena ez dira gertakari isolatuak izan. Demokrazia hauteskundeak egite hutsera mugatzen duten sindrome baten ondorio naturalak baizik. Boto-emaileen parte-hartze baxua, paralisi politikoa, mesfidantza, indiferentzia eta bestelako paroxismo batzuk ere ageriko sintomak ditu.

nuak edo zuzendaritzak hala erabakitzen duenean; botoa emateak ordezkariak edo buruzagiak hautatzeko balio du, ez egin beharreko politiken gainean zuzenean erabakitzeko; azkenik, boto-emate ariketak ez du pasioa, esperientzia, ibilbidea kontuan hartzen. Informazioz ez duen edo axolagabea den norbanako baten botoak bizitza osoan konprometituta eta jakintzak pilatzen saiatutako beste baten balio berbera du. Esan liteke hauteskundeen errituala parte-hartze politikoa otzantzearen zerbitzura dagoela, herritarren altxamenduak

eragozteko errutina prozesu bat ezarritik. Nolabait, *à peu près*, sufragioaren zabalpena erreboltaren aurkako dike moduko bat da.

GEHIENGO SINPLE, ITZULI BAKAR

Saltsa guzti honetan, egurrezko koilara batek bezala, David Van Reybrouck historiagile eta arkeologo belgikarrak idatzi duen “Hauteskundeek kontra” saiakera liburu gogoetatsu eta probokatiboak eskemak aztoratu ditu. Irakurketa gomendagarria da; haren esanetan, Brexita edo Trumpen garaipena ez dira gertakari isolatuak izan, “Neke De-


Kairoko Tahrir plazan, «inoren alde botorik ez ematera» deitzen duen murala.
GAUR8

mokratikoaren Sindromearen” ondorio naturalak baizik. Brexita, adibidez, mugarriztat jotzen du: halako erabaki drastiko bat, kontinente baten geroa baldintza dezakeen erabaki bat, hain primitiboa dirudien prozedura batekin hartzea, *larreostia* da. Erabakia 18-24 urte bitarteko boto-emaileek inoiz izan duten parte-hartze txikienaz eta 75 urtetik gorako enrek historiakoarekin, gehiengo sinplez, itzuli bakarreko erreferendum batean hartzea gaixotasun horren sintoma argitzat dauka Reybrouck-ek.

Hori ez da, ordea, sintoma bakarra. European, botoa ematen ez dutenak eta hauteskundeek “zirkutik” kanpo beren burua kokatu dutenak ahazteke, botoemaile asko atsekabetuta daude, alderdiekiko leialtasun zaharrak hausten ari dira, alternatibarik eskaini ez arren, sistemaren kontrako ahots populistak gero eta erakargarriagoak dira gero eta jende gehiagorentzat. Gobernu ezegonkorak normaltasun berria dira. Van Reybrouckek gogorarazten duenez, ia bi urtez gobernu osatzeko egoteagatik Belgikari irri egiten ziotenak konturatzen ari dira orain Europa “belgikartzen” ari dela.

Eta zerrendak jarraitu egiten du: boto-emaileen parte-hartze baxua, gainbehera doan alderdien afiliazioa, gobernuen inpotentzia, paralisi politikoa, masa-komunikabideen estres nekagarria, mesfidantza, indiferentzia eta bestelako paroxismo iraunkor batzuk.

Van Reybroucken iritziz, “Neke Demokratikoaren Sindromearen” patogenoak ez dira herriek, politikariek edo alderdiek sorturikoak; prozedurak sortzen ditu. Demokrazia ez da arazoa. Berak dioenez, hauteskundeak dira arazoa: «Gure demokrazia hauteskundeetara mugatuta dagoelako urperatzen ari da, hauteskundeak bitarteko demokratiko gisa asmatu ez ziren arren”.



Bai, fundamentalismo berri horren argitara, egungo hauteskunde dinamikaren begietara, galdetzekoa da, eta hausnartzekoa, non dagoen herriaren ahotsa. Non herriaren ahots arrazoitua. Non duen herriak informazio hoberena eskuratzeko, herritarrek elkarren artean ekin eta beren etorkizuna kolektiboki erabakitzeko aukera. Beren komunitateen geroari non ematen dioten forma? Hautesontzi batean, edo klik baten bitartez, seguru ezetz.

«Hauteskunde» eta «demokrazia» hitzak sinonimo bihurtu dira. Gu ordezkatzeko gaitue-na soilik botoaren bitartez hautatu daitekeela egia absolutu gisa barneratu dugu. 1948. urteko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak hau dio: «Herriaren borondatea gobernuaren autoritatearen oinarria izango da; eta egiazko eta aldizkako hauteskundeen, sufragio berdin eta unibertsalaren, bitartez adieraziko da, boto sekretuaren bidez edo botoa emateko prozedura baliokideekin».

Ez al da harrigarria 2.000 hitz baino gutxiago dituen deklarazio horrek herriaren borondatea nola adierazi hain zehatz definitzea? Prozedura bera eskubide eginda, sakratua den zerbaiten gisara hartu zutela dirudi.

ESPORTATZEKO PRODUKTUA

Fundamentalismo horrek hauteskundeak esportazio produktu bihurtu ditu; ondo bildu eta munduko bazter guztietara bidaltzeko merkantzia. “Hauteskunde libre eta justuak” Ikea-ko demokrazia-kit formatuan, hartzaileak muntatu behar duena, paketean datozen argibideak jarraituz edo jarraitzeke. Eta osatzen den altzaria okertuta gertatzen bada, esertzeko deserosoa bada edo hondatzen bada, errua beti kontsumitzailearena da.

Munduko jende guztia hautesontzietara bidali nahi da. Eta munduan horrela ibiltzeak askotan dituen ondorioak, biolentzia desparramatua, herrien arteko tentsioak, ustelkeria sistemikoa... ahazten da. Ebanjelismo berri eta global baten forma hartzen du. Hauteskundeak



Goian, munduko hauteskunde handienak Indian; behean, boto digitalaren irudia. GAUR8

federe berri horren sakramentuak dira, formak funtsa baino inportanteago egiten dituen errituala, hil ala biziko errituala.

Azken hiru mila urteetan demokraziarekin esperimintatu du pertsonak. Adin batean sartuta dago, bai. Eta azken be-

rehun urteetan soilik praktikatuta da hauteskundeen bitartez. Orain metodo baliagarri bakarizat hartzen dira. Zergatiak bilatzen hasita, ohiturak horretan zeresana baduela esan behar da. Baina, besterik ere badago. Hauteskundeek urte askoan dezente

Alderdien interesek eta berehalakotasunak interes komuna eta epe luzea azpiratu dituzte. Hurrengo hauteskundeak irabaztea aurrekoetan egin promesak betetzea baino inportanteagoa da

Ebanjelismo berri eta global baten forma hartzen du. Hauteskundeak federe berri horren sakramentuak dira, forma funtsa baino inportanteagoa bihurtzen duen errituala

ongi funtzionatu dute, eman diezaiegun tanto hori, esan dezagun demokrazia posible egiten lagundu dutela.

Baina Van Reybrouckek iradokitzen duen bezala, ez al dira hauteskundeak politikaren erregai fosil bilakatu? Aspaldi sekulako bultzada eman zioten demokraziari, baina, egun, arazo kolosalak sortzen dizkiote. Demokraziaren erregaiak zeintzuk diren zehaztu eta demokraziaren teknologia egokitzen ez bada, horren inguruan hausnartzen ez bada, krisi sistemikoa, tsunamia, areagotuko da.

HISTORIA ESPLORATU

Beste aukera batzuk esploratzen hasteko, demokraziaren historian atzera bidaiatzea lagungarria da. Antzinako Atenasen, esaterako, zozketa bidez hautatzen zituzten erabakiak hartzen zituzten instituzio gorenak, hala nola, 500en Kontseilua, *Ekklesia* edo Herritarren Biltzarra edo magistraturak.

Atenastar hiritarrak gutxi gorabehera populazio helduaren seiren bat baino ez ziren. Beste bost herenak, emakumeak, esklaboak eta atzerritarrak ziren. Egungo ikuspuntutik, demokrazia eredu akastun eta aberrantea dirudi, baina garai haietan gobernatze arbitrariotik urruntzeko aurrerapen handia izan zen.



Antzinako Greziatik Europako Erdi Arora salto eginda, Florentzia, Venezia eta Europako hainbat hiritan zozketa bozketarekin konbinatuz hautatzen zituzten liderrak. Jakina, aristokratek soilik hartzen zuten parte; herriaren parte-hartzea ez zen inon ageri. XVIII. mendean herriaren parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan ideal bat baino ez zen, errealitatean existitzen ez zen zerbait. Aristokrazia hereditarioek agintzen zuten. Frantziar eta amerikar iraultzek, monarkiari aurre egin eta hankaz gora bota zituztenek, erabakiak hartzeko zein sistema lehenetsiko zuten?

Zozketa edo bozketa, bi aukera zituzten. Orduko hainbat idazleren ikuspuntutik, bozketa mekanismo aristokratikoa zen, eta zozketa, berriz, demokratikoa. Jakina denez, iraultzaile haiek bozketaren alde egin zuten.

Hurrengo hamarkadetan, sufragioa apurka-apurka hedatzen joan zen, baina sistemak modu berean funtzionatzen jarraitzen zuen; jendeari gobernugintzan zuzenean parte hartzea debekatuz. Galtzerdiari bezala, ideia zaharrari buelta eman zitzaion eta hauteskundeak mekanismo aristokrata zirela zioen ideia irauli eta egundaino indarrean dagoe-

na zabaldu zen. Hots, hauteskundeak dira demokrazia.

Idea horren nagusitasuna hain zen agerikoa, ezen «hauteskundeak» Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean idatzi baitziren. Gobernu errepresentatiboa da «demokrazia» hitza, eta parte-hartzeko beste mekanismoak adjektibo forma batekin konformatu behar dira (demokrazia zuzena, demokrazia parte-hartzailea...).

HERRI EPAIMAHAIAREN SISTEMA

Zozketa bidezko hautaketaren analogia onena, segur aski, epaitegietako herri epaimahaiena da. Dozena bat herritar ausaz hautatzen dira, denbora mugatu baterako. Lekuko eta abokatuiei entzun ondoren, epaia

Aristotelesen hitzak
hausnarketarako gonbita
egiten.
GAUR8

Hauteskundeak herriaren borondatea adierazteko mekanismotzat hartu zirenean ez zegoen alderdirik, ez sufragio unibertsalaren legerik, ez masazko komunikabiderik, ezta internet ere

Imajinatu zozketa bidezko legebiltzarra: legebiltzarkide ez hain aberatsak, gizon eta emakumeak igualtsu, azal kolore askotarikoak, oso abokatu gutxi, 40 urtetik beherakoak asko

eman behar dute. Epailleak baino esperientzia gutxiago izan arren, herri epaimahaiaren sistemak bere abantailak ditu: herritarak zozketa bidez hautatuak diren heinean, adin, lanbide, heziketa maila, genero edo jatorri mailan, herriaren ordezkaritza erreala goa, egiazkoa goa, dira; azken emaitzan ez dute interes pertsonalik; denbora mugatuan diharduten heinean, influentziatuak izatea zaila goa da; herri epaimahaikide izateak parte-hartzean hezi egiten du; erabakiei sinesgarritasun handiagoa ematen die, epaimahai-kideak akusatuen gisakoak diren heinean, ez ikuskatzaile.

Zozketak herritarren ausazko hautaketa esan nahi du, erabakiak hartzeko paper bat betetzea, denbora mugatu batean. Ardura mugatua da, aukeratua izateak mandaturik ez dakarrelako. Demografikoki, komunitatea hobeto ordezkatzeko dute, eta ordezkaritza are hobetu daiteke gizartea geruzatzen duten laginekin.

Azken hamarkadetan, zozketa bidezko hautaketan oinarritutako esperimentu politikoak ez dira falta izan. Populazio zehatz batean zoriz aukeratutako ordezkaritza batek, informazio osoaz eta adituen iritziez horni-

tuta, energiari buruz, azpiegituraz, ingeniariaritzaren genetikoaz edo irakaskuntzaz erabakiz. Kanada eta Herbehereetako gobernuak gisako mekanismoa erabili zuten herrialdeko hauteskunde legearen erreforma bideratzeko, nahiz eta gero, bizitzaren ironiak zer diren, herri galdeketa atzera bota zuten. Bada ere biganbera legegileko herrialdeetan bietariko bat zozketa bidez hautatzea defendatzen duenik.

Zozketa bidezko hautaketak dituen abantailak eta desabantailak laburbilduz, hauek azpimarratu daitezke: aldeko ditu herriaren interesen ordezkaritza eraginkorra; zuzentasuna eta berdintasuna; demokratikoa da; jende xeheari boterea ematen dio; boto-emaeleen nekea arintzen du; alderdiekiko leialtasunaren aurrean, nor bere kontzientziarekiko leialtasuna lehenesten du. Kontrakoak ere badaude: zozketak soilik ez du diskriminatzen, abilitade, jakintza edo esperientziak ez ditu kontuan hartzen; ordezkaritza falta bat egoteko, matematikoki bederen, aukerak ematen ditu; botoa emateak legitimitatea ematen du, gobernatuak diren onespena; aukeratuak izan diren gogoa eta pasioa ez ditu bermatzen, ez eta hautatuekin herria gustura dagoen ala ez adierazteko mekanismorik.

HAUTESKUNDE LEHIA, TELENOBELA

Hauteskundeak sortu ziren tesuingurua eta egungoa oso ezberdinak dira. Frantziar eta amerikar iraultzek hauteskundeak «herriaren borondatea» zein zen jakiteko bidetzat hartu zituztenean ez zegoen alderdi politikorik, ez sufragio unibertsalaren legerik, ez masa-komunikabide komertzialik, ezta Internet ere. Ez zeuden eta, seguru, noizbait egongo ziren usainik ere ez zutela hartzen.

Bigarren Mundu Gerraren ondorenean mendebaldeko demokraziak masazko alderdi politikoek dominatzen zituzten, estatuaren aparatuek bere esku hartuz. Sindikatu eta alderdien komunikabide eta bitartekaritzarako beste mekanismoak esker jendearen bizitzarekin ger-

tutasun bat bazuten. Ondorioz, sistema egonkor askoak, alderdiekiko leialtasun handia eta aurrez jakin zitekeen boto jokatze bat sortu ziren.

1980-1990etik aurrera merkatu librearen forma eman zion diskurtsoari. Alderdien prentsa ia erabat desagertu edo komunikabide korporazioei saldu zitzaizkien. Masazko hedabide komertzialak kontsentsu sozialaren eraikitzaile bihurtu ziren, eta gizarte zibilak tokia galdu zuen. Apurka, herritarrek kontsumitzaile egin eta hauteskundeak “arriskutsu” bilakatzen joan ziren.

Alderdiek herriaren eta botearearen arteko bitartekari izateari utzi, eta estatu aparatuen itzalean kokatu ziren. Toki horri eta zuten legitimitateari eusteko urte gutxian behin botoemaileengana jo behar zuten. Hauteskundeak komunikabideetan jokatzen zen bataila bilakatu ziren, botoemaileen faborea eta arreta eskuratzeko, emozio, eta pasio makurrenak xaxatuz.

Telenobela bilakatu da dena, politikariei gidoia eta eztabaidaren markoa ezarri. Politikari famatuak, orain, gidoi hori aldatu eta eztabaidari marko propioa emateko gai direnak dira; hau da, komunikabideak beren borondata makurtzeko gai direnak.

Hauteskunde-eztabaida publikoa espektakulu kontrolatua bihurtu da. Pertsuasio teknike tan adituek zuzentzen dituzte usteko aurkarien arteko eztabaidak, oso gai zehatzetan soilik borroka daitezkeen. Herritar masak, ikusle pasibo gisa, bidaltzen zaizkien seinaleei erantzuten diete soilik. Alderdiek «kartel» bat osatu dutela esaten da, eta politikariak «kasta» direla.

EZ DA SENDABIDE AHALGUZTIDUNA

Hamarkadetan zehar hauteskundearen fundamentalistak hautetsontziei Grial Santua balira bezala lotu zaizkie, azkenean, kaliza pozoitsu bati lotuta daudela jabetzeko. Hauteskundearen baliagarritasunak, hautetsi batengan delegatzeko sistemak, beharrezko zuten komunikazio geldoa eta informazio mugatua, eta hala izan zuten. Gaur egun, ordea, herritarren arteko elkarrekikotasunak nolakoak diren ikusita, jo-

koz kanpo daudela esan daiteke.

Anarkistek bozkatzeari egiten dioten kritikaren oinarria hau da: botoa ematea Estatuaren legitimitatea da. Eta Estatuaren arazoaren parte denez gero, gerren, genozidioen, errepresioaren, gizonezkoen dominazioaren, desberdintasun ekonomikoaren, ingurugiroaren suntsiketa- ren... lehen lerroko protagonista denez, beren ustez, txorakeria da pentsatzea arazook konpon daitezkeela Estatuaren buru gutxi batzuk izenez hautatuta.

Beste kritika batzuk ere badaude: hauteskundeetan parte hartzea ez da herri kontrolaren sinonimo. Bozkek masazko ekin-tza politikoa forma maneigarri batzuetara eramaten dute: hauteskunde-kanpainak eta botoa ematea. Herritarrek parte har dezakeela ikasten dute, ez direla guztiz baztertuak. Baina, zertarako hezi masak, gero hitz egiten uzten ez bazaie?

Hautatuek herria ordezkatzeko dutela suposatzen da, nolabait, herritarrek bezalakoak direla. Egun, baina, praktikan, bereizte printzipio batek funtzionatzen du. Politikari profesionalak, dinastia elektoralak... ikus daitezke. Imajinatu dezagun zozketa bidez hautatutako edozein legebiltzar: gizon eta emakumeen artean erdi bana partitua litza-teke, legebiltzarkideak ez lirateke hain aberatsak izango, azal kolore askotakoak izango lirateke, hoberako ala txarrerako oso abokatu gutxi egongo lirateke, eta asko 40 urte behar izango lirateke.

Zozketak, hein batean, oroigarri bat dira: demokraziak balantza bat izan behar du, gure arteko onenen eta gu ordezkatu behar diren arteko. Ez du zertan dena ala ezer ez izan, zozketaz ala ezer ez. Ez da sendabide ahalguztiduna. Ez du bermatzen “herriaren ahotsa” entzuna izango denik. Izan ere, herriak ez du ahots bakarra, askotarikoak daude eta denak entzun behar dira. Baina hori bai, demokraziaren teknologia berritzen ez bada, egungo sistema konponketa posiblerik gabe geratzeko arrisku bizian dago.



Hauteskundeetan parte hartzea ez da herri kontrolaren sinonimo. GAUR8

ERRUMANIA

Zenbat kobratzen dute zakurrek oposiziokoen protestetara joateagatik?

 **POLITIKA /** joseangel.oria@gaur8.info

Berri faltsuak betidanik izan dira munduan, baina AEBetako azken hauteskundeetan teknika bera erabiliz Trumpek garaipena lortu zuenetik, «fake news» espresioa ikasi beharrean izan gara. Errumanian oso modu harrigarrian zabaltzen dituzte gezurrak, telebistak esan baitu zakurrek ere kobratzen dutela oposiziokoen ekitaldietara joateagatik.

Telebistak esan ba-
du, nola izango da
bada gezurra?
Orrialdeotan es-
kaintzen dugun ar-
gazki handia aur-
tengo otsailaren 13an ateratakoa
da, Bukarest hiriburuan, Gober-
nuaren aurka egindako mani-
festazio batean. Bertan ageri
den herritarra bere zakurrare-
kin irten zen kalera bere haser-
rea adieraztera.

Errumaniako hedabide ba-
tzuetan irudi hori ikustea nahi-
koa izan zen bertako arduradu-
nek berri faltsu bat asmatzeko:
protestaldien antolatzaileek di-
rua ematen diete bertan esku
hartzen dutenei.

Romania TV kateak zehaztu
zuen zenbat kobratzen duen es-
ku-hartzaile bakoitzak: «Hel-

duek 100 leu (22 euro inguru) ja-
so zituzten, umeek 50 leu, eta
zakurrek 30».

Tankerako berri baten arabe-
ra, George Soros AEBetako diru-
dunak tragedia eragin zuen sute
bat finantzatu zuen 2015ean, us-
tez agintean zeuden politika-
rien etsai amorratua delako. Su-
tea benetakoa izan zen eta 64
pertsonek hil ziren.

TELEBISTA KATEAK

Gertaera horrek eragin zuen so-
zialdemokratek osatutako Go-
bernua erortzea. Adituen ikerke-
tak baieztatu zuen segurtasun
arauak bete ez izanak eragin
zuela sutea. Gainera, sutetik bi-
zirik ateratako herritar batzuk
ondoren hil ziren erietxean,
osasun sistemak dituen gabezia
larriak agerian uzteko.

Argazki handia aurtengo
otsailaren 13an ateratakoa da,
Bukarest hiriburuan,
Gobernuaren aurka egindako
manifestazio batean. Bertan
ageri den herritarra bere
zakurrarekin irten zen kalera
bere haserrea adieraztera.
Daniel MIHAILESCU | AFP

Beheko bi irudietan,
Errumaniako Ikus-
entzunezkoen Kontseilu
Nazionalako langileak
beharrean, erakundeak
Bukarest hiriburuan duen
egoitzan.
Andrei PUNGOVSCI | AFP





Hogeï milioi biztanle dituen herrialdean bost katek dute telebistaren tarta osoa. Romania TV da horietako bat. Hauteskunde-etarako bi egun falta zirela plazaratu zuen Soros buruzko «berria». Beste kate batzuek ere bide bera hartu zuten.

Testuinguru horretan ez da harritzekoa herritar asko oso haserre egotea. Egungo Gobernuak urte hasieran ustelkeriaren aurkako neurriak samurtzeko erabakia hartu zuenean, 500.000 errumaniarrek hartu zuten parte neurri horren aurkako mobilizazioetan.

Giro baketsu eta alaia izan zen nagusi leku gehienetan, baina erreportaje batzuetan «gerra kaleetan» ikusi zuten. Baita «esta-tu kolpe» bat ere.

Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nazionalak inoiz baino salaketa gehiago jaso ditu urtarrilean eta otsailean: 2.163. Iazko epe berean jasotakoan hamar halako, Dorina Rusu kontseilariak emandako datuen arabera.

ISUNAK ETA PUBLIZITATEA

Romania TV kateak 6.600 euroko isuna ordaindu behar izan zuen Sorosen inguruan esan zituenak esateagatik. Beste 11.000 euro pagatu zituen manifestariak kobratzen omen dituzten kopuruen inguruko «berri faltsua» plazaratzeagatik.

ActiveWatch prentsa askatasunaren aldeko elkarteak eta Art Directors Club Errumaniako publizitate profesionalen erakundeak ere salatu dute inoiz baino

«gehiegikeria» gehiago egiten dutela hedabideek.

Ondorioz, berri faltsuak plazaratzeko garaian gehien nabarmendu diren bi kateek zuten publizitatearen bi heren galdu dituzte otsailean, IQads webgune espezializatuaren arabera.

Romania TV kateak zehaztu zuen zenbat kobratzen duen esku-hartzaile bakoitzak: «Helduek 100 leu (22 euro inguru) jaso zituzten, umeek 50 leu, eta zakurrek 30»

Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nazionalak inoiz baino salaketa gehiago jaso ditu urtarrilean eta otsailean: 2.163. Iazko epe berean jasotakoan hamar halako, Rusu kontseilariaren arabera

AEBetan egin duten moduan, Errumanian ere Errusiari leporatzen diote fenomenoak. Azken bolada honetan Errumaniak Europar Batasunarekin eta NATO erakunde militarrekin dituen harremanen inguruko gezurrak zabaldu dira. Esaterako, esan izan da Errumania Europar Batasuneko «diru-emaile netoa» dela gaur egun, hau da, blokeari diru gehiago ematen diola jasotzen duena baino, baina herrialdeak kohesio funtsetatik 26.000 milioi euro jaso ditu 2007an blokean sartu zenetik. Beste «fake new» baten arabera, «herrialdeko nekazaritza lurren %70» atzeritarren esku daude.

Corina Rebegea Europako Politikaren Analisi Zentroko adituak «errusiar propaganda» ikusten du fenomenoaren atzean: «Helburua herritarrek Europar Batasunarengan eta NATOrengan duten konfiantza ahultzea da, Errumania nazioartean gero eta zaurgarriagoa izan dadin».

ERRUMANIARRREN KONFIANTZA

Errumaniarrak dira, inkesten arabera, Europar Batasunarenganako konfiantza gehien duten herritarrek (%50 inguru, batez bestekoa %35koa denean), baina hedabideek azken bolada honetan zabaldu dituzten «berrien» eraginez, ia baztertuta zeuden mezu euroeszeptikoak indartzen ari dira. Euroeszeptizismoak gora egin du, batez ere iazko udan Romania TV katearen jabetza duen Sebastian Ghița diputatu sozialdemokrata ohiak alderdi nazionalista txiki batekin bat egin zuenetik. Geroztik kateak ildo bereko politikari ugari eraman ditu platora.

Corneliu Bjola Oxfordeko Unibertsitateko irakaslearen iritziz, «errusiar propagandak aurrera egiten jarraituko du datozen urteetan, Errumania europar proiektuaren punturik ahulena bezala ikusten baitute, bere barne tentsioen eraginez».

«Lotsagabeko gezurrak diskurtso politikoaren zati dira Antzinako Greziaz geroztik eta Erromatar Inperioaren garaian ere asko erabili ziren», Robert Zaretsky Houstongo Unibertsitateko historialariaren iritziz.



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Hazi-minak

Nire aspaldiko kezka da pazienteengan nola baiteko osasunaren autogestioa bultzatzea, hau da: bere burua zaintzen erakustea, osagileongana beste erremediorik ez dutenean bakarrik etorrita; gure amona zaharren sistema berrikastea, alegia. Hori zentzuz egin behar da, noski: ez nabil esaten jendeak pneumoniak edo tendinopatiak etxean bere kontura tratatu behar di-tuenik. Baina Ainhoak proposatu digun gai honen ka-suan, ikusiko duzuenez, etxean asko eta ongi egin daite-ke.

Haurren hazkunde prozesuan organismoaren eraldaketa sakona gertatzen da; nerbio sistemak gidatuta, gorputz hel-dua izateko prestatzen dira, maila guztietan. Prozesu horrek umearen etengabe-ko egokitzea eskatzen du, egon diren aldaketak inte-gratzeko; batzuetan, egoki-tzapen horrek mota askota-ko ondoezak ekar ditzake, jendeak inespezifikoki ha-zi-minak izendatzen dituen horiek alegia. Aldaketa ho-rien artean, agian, begi-bis-takoena hezurren hazkun-dea izaten da.

Gurasoak bazarete, eta zuen haurrak esku artean erabiltzea gustuko badu-zue, agian xelebrekeria ba-tekin konturatuko zineten: atzamarrarekin sakatzen badituzue, berdin da gor-putzeko zein tokitan, beti min hartzen dute. Inoiz le-sioren bat badute, kirolean egina adibidez, guk ere la-nak izaten ditugu fisiotera-pia esplorazioa egiterako-an: izan ere, ume eta nerabeek mina edonon du-tenez, benetako lesioa iden-tifikatzea zailagoa izaten da. Baina gu ez gara gaur le-sioez arituko, hazkunde prozesu normalean zehar agertzen diren min norma-lez baizik. Etxean, eta arazo handirik gabe, gurasoek eta senideek goza ditzakezue-nak.

Agian ez da azalpen fisio-logiko oso ortodoxoa izan-

go, baina nik gurasoei azaltzen diedana kontatuko di-zuet: hazkunde pizten den aldietan, prozesuaren motor nagusia hezurak izaten dira.

Horrek esan gura du oso modu bizkorrean handitzen di-rela, batez ere luzeran. Muskulu eta tendoiak, esate batera-ko, ez dira hain bizkor hazten. Eta zer gertatzen da? Hezu-rrek haiengandik tiratzen dute, poliki baina etengabe, katu hidraulikoak egingo lukeen eran: horretara, muskulu eta tendoiak derrigor eta kostata hazi behar izaten dira, hezu-rren hazkunde erritmo bizkorrari jarraitu ezinda. Egoera horretan dago guk besarkatu nahi dugun gorputz txikia. Normala min hartzea!

Hazkunde prozesua oso bizkor gertatzen ari bada, ukitze-

an bakarrik ez, haurrak egonean ere har dezake min. Tipikoki, hazi-minak aktibitate fisiko handiko jolasen ostean agertzen di-ra, egunaren amaieran edo gauean (batzuetan umea negarrez esna daiteke). Iz-ter edo bernetako musku-luetan mina izaten da, ez giltzaduretakoa, eta bihara-munean desagertzen dira. Horrelakoetan zer egin?

Hazi-minak kontaktu fisi-koarekin baretzen dira. Haurra besoetan hartuta hobetzen dira. Hankak mugituta, berotasuna emanda (ur beroz beteta-ko puxikarekin, adibidez), edo masaje leuna emanda ere hobetzen dira.

Hori fisioterapia zentro batean egin daiteke, noski; baina, aukeran, gurasoei eurek egitea gomendatzen diegu. Lehen esan dugun modura hazi-minak nor-malak dira (ez dira gaixota-sun bat), berauek baretzeko behar den terapia fisikoa oso sinplea da, inolako arriskurik gabekoa, eta za-lantzarik gabe terapiaren eragina handiagoa izango da haurrak maite duen per-sona batek egiten badu, lo-tarako orduan eta giro lasai batean. •



{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Eraiki, kontatu eta gogoratu beharreko egun handia da

Gaur, 2017. urteko apirilak zortzi dituen eguna, ez da ohiko eguna. Poz betea ematen duen egun horietako bat da, handia, zoriontsu egotekoa, nork bere emozioei sueto bide ematekoa. Egin eta egitea nahi dutenen eguna da; ez, egin da egotea nahi dutenena. Baita kortasunaren ziurtasun faltsu, esfortzu propiorik gabe gauzak aurrera ateratzen diren uste ustelaren eta dena erremediorik gabekoa dela dioen ezkortasunaren artean, bien pasibotasun eta konplazentziaren aurka sortzen den esperantzarena. Etorkizuna nolakoa izango den aurretik ezin delako esan, zer gertatuko den ez dakigulako, baina guk idatz dezakegula ondo ikasia eta barneratua dugulako esperantzarena.

Giza-jendea kreatura konplexua da. Esperantza eta larrimina gure baitan batera existitu daitezke, gure azterketa eta mugimenduetan. Sentimenduak nahi eta ezinaren minetan eta amorruan sustraitu ditzakegu, baina, gero, ametsaren ildoan, bisio horrekin eta bisio hori konpartituz eman ditzakegu fruituak, misio horren zerbitzura. Hartzen diren erabakiak, egiten ditugun ekintzak ez dira bizi-rik daudenengan soilik bizi-tzen, hamarkada bat geroago inpaktua izaten jarraitzen dute jaiotzearen daudenengan, nortasuna emanez, historia bat borobilduz.

Ildoa jorratu, hazia landatu eta, gero, uzta jasotzen da.

Ahal duguna egiten dugu. Eta egin dugun horrek imajina dezakeguna baino gehiago egin dezake datoen belaunaldien alde. Hazia landatu eta zuhaitza hazten da bertatik. Fruitua, itzala, bizilekua, hazi berriak, basoa, su berriak pizteko egurra edo etxea emango dizkigu. Zuhaitza pertsona baino gehiago biziko da. Eta berdin ideiak, apustu politikoak, bizi-borroka bateko konpromisoak. Gure aberriaren txikia eta mundua alda dezakete, egin dezakeguna egiten badugu, gure arteko onenak aitzindari, gu guztion onena ateratzen badugu. Egiten dugun horrek gero egingo duena gure gain ez dagoen arren.

Esanahiz betea da gaurko eguna. Herrian sortu zena herriak birstutuko du. Modelo zehatz eta fotokopiatu bati jarraitzeke hasi zena, manualetan ez zegoen modelo herri-tar batekin bukatuko da. Ondo, sendo eta hamarkada batzuetarako ireki zena, ondo ixten ari da, oraindik irekita

dauzkagun zauriak ixteko lagungarri, aukera berriak irekitzeko energien askatzaile. Behinola, askok eta askok imajinatu zutena, Iruñeko Foru Monumentuaren pean, Euskal Herriko nazio instituzio goren baten aurrean, okasiorako txapela eta dotore-dotore jantziz irudikatutakoa, ez da izango. Baina gaur izango dena, bere eredu, modu eta mezuekin ederra izango da oso.

Ez da bere baitan iraultza bat izango. Baina onura kolateral eta zeharkako ondorio handiak izango ditu. Kutsakorra izango da, zentzu onean kutsakor, ideala, esperantza eta kuraia kutsatuko dituelako. Historia bat borobilduko du, eraiki, kontatu, gogoratu eta ospatu beharrekoa, eta gure historia horren kontalariak, mezulariak, izateak eguneroko lanaren ardatz izaten jarraituko du.

Falta direnak, borrokan eroriak eta gatibuak, gogoan izateko eguna da. Haien ausentzia gertuko presentzia, haien ekarria nabarmentzeko, aurrera begira jartzeko egu-

Egingo dugun horrek gero egingo duena gure gain egon ez arren, gure onenaz ildoa jorratuz ahal duguna egiten bada, haziak zuhaitza emango du. Eta honek, fruitua, itzala, basoa, etxea, su berrietarako egurra

na. Gaur ez da ezer amortizatzen, historia oso bat kapitalizatzeke palanka berri eta indartsu bat ezartzen da.

Gaur ikusiko dena posible egin duten guztien lana aitortzeko eguna da. Egunkarietan atera ez arren, ezker abertzalean isil-isilik, egoera zail askoan, munduko pazientzia iraultzaile guztiaz jardun direnen lana aitortzeko. Gaurko eguna herriari itzuliz, herriartuz, herria hartzaile eta berme bakar hartuta, Ipar Euskal Herriko anai-arreben jokabidea eskertzeko. ETaren hitza beti hitz, bere jardun osoan hitzezkoa izan dela azpimarratzeko. Gaur, euskaldunok, arma kimikoen eraso eta misil nuklearren proben berriez lepo dugun mundura zabaltzen dugun mezua balioan jarri beharrekoa da. Gaur pozik egon eta ospatu behar den eguna da. Bihar, hortzak izerdi, lanari indarberrituta ekiteko eguna izango da. Izorra daitezela etsaiak eta tristeak, bejondeiola Euskal Herriari. •

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Asteburu bereziko agendan, Iruñeko Anaitasunako finala

📁 **BERTSOLARITZA** / Amagoia Mujika Telleria eta Maider Iantzi Goienetxe

•**Argazkiak:** Nafarroako Bertsozale Elkartea

Hain berezi datorren asteburuko agendan, Nafarroako Bertsolari Txapelketak ere badauka bere tarte. Anaitasunako kiroldegian dago jarria hitzordua, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Zortzi gizonezko arituko dira lehian, horietatik zazpi aurreko finalean arituak. Xabi Maia

elizondoarra izango da finalista berri bakarra. Txapela, baina, emakume baten eskutik jasoko du txapeldunak: Luzia Goñi Oliasek, duela 89 urte Aizarotzen jaiotako bertsolariak, jantziko dio. Plazarik izan ez duen emakume belaunaldi oso bat igoko du oholtzara berekin Luzia Goñik.

Bera da egungo Nafarroako txapelduna. 2015ean, bizi egoera oso berezi batean, final ahaztezina josi zuen Elizondoko plazan. Bere gogo-aldartera bildu zuen plaza guztia, bertsolaritzan batzuetan gertatzen diren une magiko horietako bat sinatuz. Gorritiarrak (1987) baditu Nafarroako beste bi txapel (2010 eta 2011). Txapelari begira baino, bere barrura begira dago.

Zer moduz sentitu zara aurten txapelketan?

Gurea lehen saioa izan zen eta sintonia entzun arte kostatu egin zitzaidan sartzea. Finalera begira, egia esan, ilusio eta indar dezenterekin sentitzen naiz. Baina finala beti da berria eta ez dakizu sekula nola erantzungo duzun. Ilusionatuta nago, nahiz eta bertsolariak beti dituen barne kezka batzuk.

Elizondoko finala oso berezia izan zen. Anaia galdu berria zenuen eta barrura begirako momentu batean harrapatu zintuen. Zein unetan zaude orain?

Elizondokoa oso berezia izan zen, egoera zena zelako eta bertsotan inoiz egin ez nuen moduan egin nuelako. Bertsotan egin nahi nuen eta hortik aurrera igual zitzaidan frontoitik atera eta elurra edo eguzkia ari zuen. Azken bi urteak gogorrak izan dira, bizitzak astindu dezentekoa eman digu eta hortik edaten ari gara etxean. Bertsotan ere hortik ari naiz. Ni ez naiz lehengoa eta egoera berri hau nire bizitzara egokitzen ari naiz. Bertsoa nire bizitzaren parte denez, bertsoa ere egokitzen ari naiz. Ez modu kontziente batean, baina ni konturatzen naiz

JULIO SOTO EZKURDIA

«Lazkao Txikik bazuen liburu bat; ‘Irriz eta malkoz’. Bertsoa horrela bizi izan dut azken bi urteotan»



sentsazio desberdinak ditudala batzuetan oholtzan, gauza desberdinei kantatzeko beharra dudala... Azken bi urteetan bidetxo batean nator eta bide horretan harrapatzen nau txapelketak.

Bertsoak lagundu al dizu bide horretan?

Bertsoak lagundu dit etxetik ateratzen eta nire burua zutik eusten. Azkenean bertsoa

«Ni ez naiz lehengoa eta egoera berri hau nire bizitzara egokitzen ari naiz. Bertsoa nire bizitzaren parte denez, bertsoa ere egokitzen ari naiz»

jendaurreko zerbait da eta, normalean, dolu-prozesu bat bizi duzunean ezkutatze joera izaten duzu. Bertsoak behartu nau jendearen aurrean jartzen eta askotan umore giroan egoten. Bertsoa lagungarri izan zait bide honetan. Egia da, hala ere, askotan mesede egin didala baina beste askotan oso gordina egin zaidala bertsotan ari beharra eta jendaurrean jarri beharra. Lazkao Txikik bazuen

liburu bat, “Irriz eta malkoz” izenekoa. Bertsoa azken bi urte hauetan horrela bizi izan dut. Jendaurrean jartzeak beti jaten zaitu pixka bat, baina egia esan bertsoari eskertu samarrik nago bide honetan lagundu didalako.

Irriz eta malkoz diozu. Baina aspaldian zaila da Julio Soto irriz ikustea.

Egia da aspaldi samarrean nahiko serio nabilela, baina ez da nik aukeratu dudan zerbait. Gauza gogorra da etxean pasa zaiguna, jendearentzat denbora azkar pasatzen da, baina horrelako zurrumbilo batean sartzen zarenean, bizitzak horrelako astinaldia ematen dizunean, zure erlojuak mantso pasatzen dira. Jendeak nahi izaten du zure ezpainetan irria lehenbailehen ikusi, baina zuk denbora behar duzu. Nik denbora behar dut oraindik, bide luzea geratzen zait. Pentsatzen dut irribarrea gero eta gertuago izango dudala eta agian larunbatean inoiz baino irri gehiago egingo dut.

Asteburu oso berezia da.

Bai. Pentsatzen dut bertsolariak eta ingurua markatuko dituela asteburu berezi horrek. Pentsatzen dut jendea Baionara begira egongo dela goizetik eta biharamunean Korrika izango da. Ez da jakiten horiek mesedetan edo kaltetan izango diren, baina egia da emozio aldetik jendearentzat asteburu oso berezia dela. Jendea emozionatuago egongo da. Ni saiatuko nintzateke arreta gugana ekartzen eta bertso onak eskaintzen. Horrela egiten badugu, seguru jendeak erantzungo duela.

Bera da finalista berri bakarra (Elizondo, 1981). Gainontzeko zazpiak duela bi urte ere finalean izan ziren. Badaki fokuak gainean izango dituela, finalista berriaren etiketa kopetan itsatsita igoko dela oholtzara, eta hain justu horren kontra egin nahiko luke. Alegia, ez dadila igarri aurretik final batean egon gabea dela. Eta, ahal bada, ezusteko ederren bat eman dezala, «gogoan hartzeko moduko aleren bat». Xabi Maia finala bizitzen saiatuko da, «gutxitan izango dudalako horrelako aukerarik».

Zer moduz pasatu duzu final bezperako astea?

Penitentzia aste hau, ezta? [barrez]. Baditut barruan bueltaka dabiltzan mamutxoak eta barne beldurrak; ea prestatuta nagoen horrelako plaza handi bati aurre egiteko... Hori da buruan darabilan ardura edo kezka. Espero dut baietz. Ni saiatuko naiz final duin bat egiten. Postuak ez nau arduratzen, dagoeneko nire helburuak ondo beteta daude. Baina saiatuko naiz eguna bizitzen eta finala gozatzen, ez dadila di-da pasatu ni konturatu gabe. Ez nuke finala zukutu ez dudan sentipena izan nahi.

Finaleko aurpegi berri bakarra.

Duela bi urteko finaletik zazpik errepikatzen dute eta ni naiz aurpegi berri bakarra. Badakit jende askok ez nauela ezagutzen eta ez nauela sekula entzun kantuan. Gustatuko litzaidake zeozer ona eskaintzea. Oholtzara igo, lehenengo dardarizoa pasa eta bertsotan egitera, hori da buruan daukadana. Nirea eman nahi dut eta lortzen badut, gustura geratuko naiz.

Lehen plaza, 2010. urtean. 2013an, lehen txapelketa, 2015ean, bigarrena eta, 2017an, lehen finala.

Baztango bertso eskola 2009. urtean sortu genuen eta helduak ginen denak. Ni 29 urterekin hasi nintzen bertsotan. Bertsozalea banintzen, baina bertsotan egiteko aukerarik ez nuen sekula



XABI MAIA ETXEBERRIA

«29 urterekin hasi nintzen bertsotan Baztango bertso eskolan»

izan, hemen inguruan ez genuelako bertso eskolarik. Ez geneukan bertsoa egiteaz jakintza minimorik. Bertsozaleak ginen eta elkartu egin ginen. Astean behin geratzen ginen lagun kuadrilla bertsoaren aitzakian. Ez genuen inongo helbururik, pixkanaka pausoak ematen hasi ginen eta 2010ean izan zen nire lehen plaza, baina oso etxeko giroan. Azkenean, baina, zurrumbilo horretan sartu ginen eta pentsa noraino iritsi naizen aurtan.

Berandu deskubritu zenuen barruan daukazun bertsolaria.

Saltsa aunitzetako perrexila izan naiz ni eta asko mugitu izan naiz, batez ere kirolaren inguruan. Futbolean entrenatzailea izan naiz urte askoan, goi mailako tituluak dauzkat. Horrek denbora asko kentzen zidan eta agian ez nien denbora nahikorik eskaintzen nire gainontzeko zaletasunei. Heldutasunera iritsita, gauzak

garbiago ikusten dituzularik bizitzan, konturatzen nintzen beste har bat sortzen zitzaidala buruan. Futbolarekin lasaixeago nengoela, burutu nahi nituzkeen beste gauza batzuei hasi nintzen arreta jartzen, nire erronka txikiei. Eta bertsoari orduan lotu nintzaion. Bertsolari berantiarra, beraz. Baina bertso munduan adinik ez dagoenez...

Jarraitzen duzu futbolaren munduan?

Hamar urtez ibili nintzen erregional eta hirugarren mailan entrenatzen. Asteburuetan dena pilatzen zitzaidanez, erabaki nuen batean edo bestean zentratu behar nuela. Eta erabaki nuen bertsoarekin pasatu nahi nituela nire egunak. Azken hiru urteetan futboletik pixka bat apartatu naiz –gutxienez eguneroko lan horretatik– eta bertso munduan sartu naiz gehiago. Ni gauza batean sartzen naizenean buru-belarri sartzen naiz. Gauzak erdizka egin baino,

nahiago izaten dut ongi egin eta eskatzen didan denbora eskaini. Orain bertsoari eskaintzen diot nire denbora eta gustura nabil.

Futbola eta bertsolaritza. Oso desberdinak al dira bi munduak?

Oso desberdinak. Bertsotan bakarkako lanak eta etxean egin beharreko lanak garrantzia handia daukate, nahiz eta gero astero bildu lagunekin bertso eskolan aritzeko –batez ere txapelketa garaian–. Baina bertsoa bizitzeko modua oso pertsonala da. Futbolean, berriz, ez, taldearen garrantzia nabarmena da. Nire izateko moduan oso era desberdinean eraman ditut bi gauzak. Ez diet modu berean aurre egiten futbolari eta bertsolaritzari.

Bertsolaritzan ere talde lana egiten da, ezta? Badago ardura kolektibo bat saio guztien aurretik.

Bai, eta horretan sakondu beharko litzateke gehiago, nire ustez. Asteon finalisten artean aipatzen aritu gara zein garrantzitsua den oholta baten gainean bertsolarien arteko konplizitatea transmititzen asmatzea. Ondokoari entzun, haren elkarrizketari jarraitu, adarra jo elkarri... hori transmititzen asmatzen denean izugarria da. Akaso, txapelketa ez da konplizitate hori plazaratzeko plaza errazena, norberaren helburuak hor daude, *puntitis* deitzen duguna hor dago... Baina lortzen denean, izugarria da, bai bertsolariantzat, baita entzuleentzat ere.

Nolakoa izan da aste honetako zure beroketa?

Mendi bueltaxka batzuk eta kirola egin. Aurtan mendiarekin eta paseoan egin ditut nire entrenamendurik onenak, tarteka bertsoren bat botaz. Saiatuko naiz nire burua Anaitasunan kokatzen, nire buruan proiektatzen, gero hara iristean kolpea ahalik txikiena izan dadin. Uste dut lanketa handiena egina dagoela eta azken egunetan ez dut gauza arrarorik egin nahi izan.

AIMAR KARRIKA IRIBARREN

«Ez dakit buruak zer duen, batzuetan bertsotarako dago eta bertzeetan ez.»

Hirugarren finala du gaurkoa (Auritz, 1988) eta aurreko bietan bezala, finalisten artean gazteena izango da Aimar Karrika. Bera, baina, hazi egin da bertsolari bezala aurreko bi finaletatik, batez ere bere buruari «bertsolari» izatea baimendu dionetik.

Kontziente da asteburu berezia datorrela, eta bertsozale asko egongo direla begi bat oholtzan eta bestea sare sozialetan. Errealitate horretan Nafarroako finala txertatzen asmatzea izango da gakoa, Karrikaren ustez.

Zer moduz zaude?
Ongi nago. Finalaren bezperako astea gorabeheratsua izaten da, gora eta behera ibili behar izaten dudalako lanean eta tenplez ere berdintsu ibiltzen naizelako. Baina nahiko lasai nago.

Zure hirugarren finala. Zein asmo, gogo, erronka?
Ez dut sentitzen ardura handiagoa dudarik hirugarren finala delako. Lehen nahiko azaletik pasatu nuen, ez dakit prest ote nengoen orduko Anaitasunari aurre egiteko. Bigarrena, Elizondon, hobexego



Hirugarren finala izango du gaurkoa, aurretik 2009. urtean eta 2015ean iritsi baitzen txapelketaren azken geltokira zubietarra (1979). Txapelketa honetan hotz samar geratu izan da saio batzuetan eta finala baliatu nahiko luke sentsazio hori erantzeko. Umorea eta freskotasuna jantzi nahiko lizkioke finalari.

Zer moduz finaleko astea?
Nahiko lasai, momentuz. Final bezperako prentsaurrekoak eta bazkariak izan ditugu eta bertsotan nahi baino gutxiago egin dugu, akaso. Egia da, gainera, fase bat bukatzen denean hustualdi moduko bat sentitzen dugula eta igual egun batzuetako atsedena hartzea komeni izaten da, gero berriz indarrez hasteko.

Nola sentitu zara txapelketan?
Urtero bezala, izena emateko orduan pereza sentitu nuen. Urrian ematen dugu izena eta oraindik urruti ikusten da

txapelketa. Joanes Illarregirekin eman nuen izena eta, aitzakia horretan, ilusio handiz abiatu nintzen txapelketan. Nik ere banuen gogo. Lehenbiziko saioan ondo sentitu nintzen. Nire ustez, txukun aritu nintzen, baina gero jendeak ez zuen hala uste. Gero, finalerdikoan, han ginen denok sumatu genuen nahiko giro hotza. Ez dakit aretoagatik edo zergatik, baina giro hotza izan zen han. Bestetik, presioa ere sumatu dut. Beste urte batzuetan ez dut halakorik sentitu, lasaiago ikusten nituen bazterrak eta aurten sentitu dut lotuta ibili garela. Iruditu zait taldea osatzen ere ez dugula asmatu, bakoitza bere horretan

ANDER FUENTES MUJICA «ITTURRI»

«Asteburu honetan gauza asko ditugu esateko, ospatzeko eta aldarrikatzeko. Ea ez zaizkigun pilatzen»

«Behin finalean sartuta ni, behintzat, asko lasaitu naiz, aurrerago ez dagoelako beste faserik jokoan. Bertsotan ongi aritu nahi nuke eta lagunekin ofizio onak osatu»

eta bere pentsamenduetan ibili da. Ea finalean lortzen dugun horri buelta ematea.

Hotz samar sentitu zara, beraz.
Bai, ariketa guztietan nahiko hotz hasi naiz, nahiz eta gero ondo sentitu naizen. Eta iruditu zait lagunene arteko giroa ere hala izan dela. Ez dakit, akaso, nik sumatu dut horrela.

Finalean gauza horiei buelta eman behar.
Behin finalean sartuta ni, behintzat, asko lasaitu naiz, aurrerago ez dagoelako beste faserik jokoan. Bertsotan ongi aritu nahi nuke eta lagunekin ofizio onak osatu. Ondo pasatzea

eta jendeak disfrutatzea da nire helburua finalean, ez dut beste erronkarik.

Aurreko finalak nola gogoratzen dituzu?
Lehenengoa hasi berritan izan zen, 2009an. Nahiko oroitzapen ona daukat, hala ere; inkontziente samarra nintzela uste dut eta gozatu egin nuen. Lasai ibili nintzela eta azkar pasatu zela daukat gogoan. Duela bi urteko finalaz ere oroitzapen ona daukat. Final polita atera zen. Aurtengoan lasai egon nahiko nuke eta presaka ez ibiltzea. Batzuetan, akaso, gaia gainetik kentzera joaten naiz, azkar bukatzera.

joan zen. Eta, oraingoan, ez dakit. Txapelketa hau bide baten hasiera bezala hartu dut, barrura begira jartzeko eta zer egin nahi dudan zehazteko. Beldurrak kendu eta bertsotan egitera noa. Sinplea dirudi erantzunak, baina, benetan, horretara noa. Dena aherentzia, gaia entzun eta erantzutera.

Batzuetan finala gainetik pasatu zaizun sentsazioa izan omen duzu. Lehen finalean horrela izan zen, tenplerik ez, maila ere ez dakit banuen... ez nintzen han izan. Oraingoan ikusiko, horrelako saioei neurria hartu diedalakoa nago... ea zer ematen dudan gaurko finalean.

Kostatu egin omen zaizu «bertsolari» zarela onartzea. Zergatik? Beldurrengatik izango da, besteek bertsotan zenbat egiten duten ikusita... Ez dakit zehazki zergatik, baina kostatu egin zait neure buruari bertsolaria naizela

onartzea. Bertsolaritza oso plazeretik eta oso gustura bizi dudan mundua da, baina errespetu handia ere ematen dit eta horregatik, beharbada, ez diot neure buruari baimendu bertsolari izate hori. Aurten aldatu dudan gauzarik garrantzitsuena hori izan da: onartzea banabilela eta nabilen horretan ahalik ondoen aritu nahi dudala.

Erabat bertsoaren munduan zabilta, irakaskuntzaren alorrean. Zazpi urte daramatzat Ipar Euskal Herrian bertso eskolak ematen; Hendaia, Baiona, Kanbo, Hazparne... Hezkuntza arautuan eta hortik kanpo, denetarik. Seaskan gabiltza, eskola elebidunetan ere bagabiltza, baita bertso eskoletan ere.

Anaitasuna plaza ederra da, ezta? Oroimenetik baino, Elkarrekin egin duen bideotxo batetik

«Bertsolaritza plazeretik eta gustura bizi dut, baina errespetu handia ere ematen dit. Horregatik, beharbada, ez diot neure buruari baimendu bertsolari izate hori. Aldatu dudan gauzarik garrantzitsuena hori izan da: onartzea banabilela eta nabilen horretan ahalik ondoen aritu nahi dudala»

ikusten dut Anaitasuna. Plaza ederra da, bildua, gertukoa, jende asko bilduko da... Duela bi urte Elizondon izan zen finala eta Anaitasunak handiagoa ematen du, nahiz eta akaso jende kopuruz berdintsuak izan. Baina Anaitasuna plaza ederra da, errespetu pixka batekin kudeatu beharrekoa.

Nola kudeatzen duzu urduritasuna? Nik ere ez daukat oso garbi [barrez]. Ez naiz patxadatsua, baina azken bi saioetan tenplez lasai ibili naiz, ongi. Ez dakit buruak zer duen, batzuetan bertsotarako dago eta bertzeetan ez. Hori da kontua. Horrek zalantza batzuk sortu izan dizkit bidean, baina ikusiko da.

Zortzi finalistetatik zazpi errepikatzen dira. Eta emakumerik ez dago. Normalean zaila izaten da finaletan ezusteko handiak gertatzea. Baina txapelketa honetan ikusi denez, belaunaldi

berriak badatoz atzetik bultzaka, eta indartsu, gainera. Badira aurretik txapelketa batzuk egin dituzten bertsolariak, nabarmen maila bat gora egin dutenak. Eta badira txapelketan sartu berriak, Joanes Illarregi kasu, oso ongi aritu direnak. Belaunaldi berriak badatozela ikusi da eta ea bi urte barru ez naizen berriro finalista gazteena.

Asteburu berezia dator, gertaera garrantzitsu asko Euskal Herrian. Hala da, eta ez dakit hori onerako izango ote den. Telefonoak itzaltzeko esaten da bertso saioetan, baina itzali-itzali inork ez du itzaliko. Bertso tarteetan asko begiratuko zaie sare sozialei, seguru. Ea asmatzen dugun hor txertatzen.

Final bezperako egunak nolakoak izaten dira zuretzat? Ez dut gehiegi sinesten errutina horietan. Bertsotan bezala, nire egunerokoa inprobisatzea gustatzen zait.

Patxada nahikoa eduki nahi nuke ariketa bakoitzari merezi duena emateko.

Zortzi finalistetatik zazpi errepikatzen duzue. Denak gizonaekoa. Baina belaunaldi berriak ere hortxe geratu dira, finalaren ateetan, eta tartean emakume bat. Duela bi urte ere hala gertatu zen eta batzuk desilusionatuta sumatu ditut horregatik. Baina, orokorrean, txapelketa honetan iruditu zait gazte batzuek salto handia egin dutela. Ez dira iritsi finalera akats txikiengatik. Egia da polita litzatekeela finala aldatzea, gazteak sartzea, emakumeak... momentuz horrela gaude. Ea pixkanaka aldatzen den finaleko panorama, bestela seinale txarra izango litzateke-eta. Pentsatzen dut datozen urteetan aldaketak izango direla.

Zer eman nahiko zenioke finalari? Lehen esan dizudanez, saio



batzuk hotzak izan direla iruditu zait, umorea falta izan zaigula. Askotan txapelketako estiloa oso dramatikoak izaten da, gaiak ere horrelakoak izaten dira eta guri

burua txip horrekin jartzen zaigu. Umora eta freskotasan pixka bat sartu nahiko nuke finalean, elkarri erantzunez eta zirikatzuz. Saioa bizi joan dadila.

Hori gustatuko litzaidake. Zailagoa da barre eragitea negar eragitea baino. Ea finalean asmatzen dugu barre eragiten.

Nola pasatzen dituzu final bezperako egunak? Ez dut plan berezirik izaten. Joanes Illarregirekin elkartu naiz bertsotan egiteko, mendi bueltaxkaren bat eman... baina normaltasunez bizi ditut egunak, etxean umeekin ere nahiko lan izaten dut-eta. Normaltasunak mesede egiten dit eta, gainera, ez pentsa denbora asko daukadanik normaltasun horretatik ateratzeko. Bertsoari begira, gustatzen zait gai batzuen inguruan pentsatzea, puripurian dauden gaiak begiratzea.

Asteburu berezia. Oso asteburu berezian egokitu da finala, gauza asko gertatuko dira inguruan. Guretzat, igual, gehiegi. Baina horrela tokatu da finala eta aurrera egin behar. Asteburu honetan gauza asko ditugu esateko, ospatzeko eta aldarrikatzeko Euskal Herrian. Ea neurria hartzen diegun eta ez zaizkigun gauza horiek denak pilatzen.

«Ongi, ongi nago. Finalerdien ondorengo astea tentsioa gainetik kentzen pasatu nuen, bestondo gisako batekin, baina bestondo ona, eta orain hankak lurrean jartzen ari naiz», adierazi digu ahots alaiz Julen Zelaietak (Bera, 1980) Anaitasunan emandako prentsaurrekotik bueltan. «Argazkiak atera ditugu, finalista guztiak elkarrekin egon gara, eta orain berriz ere zentratzea eta finalari esperatzea tokatzen da».

Denak elkartzeak lagunduko du, ezta?


Bai, badira lau bat final aitzinetik elkartzen garena. Batera egon, otordu bat egin... Aurten ezin izan naiz bazkaltzen gelditu lana nuelako eta han utzi ditut denak. Polita da. Piña pixka bat egin, elkarri animoak eman...

Nola ikusten duzu zortzikotea?

Aldaketa bakarra dago orain dela bi urtetik. Oskar Estanga falta zaigu eta Xabi Maia sartu da. Estangaren falta sumatuko ote den umoreari begira, saio atseгина izateari begira... Baina Xabik ere ongi egingen du eta bertzeok, duela bi urte bezala, bakoitzak gurea ematen badugu, saio oso bat egingen dugu.

Ez dakit konturatu zaren finaleko beteranoena zarela.

Bai, bai, bai, konturatu nintzen [dio irriz]. Gainera, banekien aurten pasatzea lortzen baldin banuen hamargarrena izanen zela. Berez ez dut presiorik izaten azkeneko urteetan, lehen bezainbertze ez. Baina aurten banuen, bereziki horregatik. 'Ez duzu deus galtzeko' erraten nuen. Baina barrenetik pentsatzen nuen: 'Hamargarrena nahi dut'. Eta beteranoena naiz, bai. Ez dakit hori ona edo txarra ote den. Beterano hitza ez zait buruan sartu orain arte. Txapelketan uste dut bigarren edo hirugarren beteranoena naizela eta finalean lehenengoa. Duela bi urte ere hala nintzen. Ez nuen espero hain agudo izatea, lehen txapelketa atzo egin nuen-eta. 99a zen, baina, atzo. Orduan Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Jean Louis Laka, eta



JULEN ZELAIETA IRIARTE

«Aitzineko finala ez zela kasualitatea izan berresteko ardura dugu»

Fermin Mihura zena ziren beteranoak. Horien beterania urruti ikusten duzu, baina urteak pasatzen direla, hori da kontua.

Zenbat urte zenituen lehendabiziko finalean?

22 urte nituen. Ordutik bertsolaritza lantzen joan gara. Landu behar izan dugu, finalean sartzea ez delako batere gauza erraza azkeneko urteetan.

Aurkezpenean nabarmendu duzue, inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ditu aurtengo txapelketak. Nafarroako bertsolaritzaren sasoiaren erakusle?

Bai. Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan dira aurten. Halere, azken txapelketarekin konparatuta lehendabiziko hamarrak, Estanga eta Xabi Maiaren aldaketa hori kenduta, berdinak gara. Orduan, kopurua handitu da baina ea hor gabiltzanak, batzuk behinik

«Banekien pasatzea lortzen banuen hamargarrena izanen zela. Manolo Arozena, Bittor Elizagoien... Horien beterania urruti ikusten duzu, baina urteak pasatzen direla, hori da kontua»

behin, bidaltzen gaituzten! Falta dena da kantitateari kalitate pixka bat eranstea.

Ze jarrera eta helbururekin joanen zara Anaitasunara?

Finala ze plaza polita den ikusita –Anaitasunan kantatzea ez da egunero duzun aukera bat– aprobetxatzea eta nire saioa egitea dut helburu. Zortzi bertsolari gara, bakoitzak gure bertsokera dugu. Bakoitzak bere lana egin behar du eta ni nirea egitera joanen naiz. Badakit zer den nik finalean egin beharrekoa. Bertze finaletan ere hala egin dut. Irakurketa bat egin eta galdetzea ea zer egiten ahal dudan, zer aportatzen ahal diodan finalari, eta horren arabera saio oso bat egitea, jendeak gogoan hartzeko moduko saio atsegin bat.

Nola joan da zuretzat orain arte txapelketa? Nola sentitu zara egindako saioetan? Txapelketa berandu samar zenez

aurten, prestaketa ere berandu hasi nuen, nahi baino beranduago, eta Iruritako final laurdenera joan nintzen pentsatuz: 'Ikusiko dugu zer egiten dugun'. Proban jarri nuen neure burua. Finalaurrekoetara bitartean hiru aste nituen prestaketak sakontzeko, ez nuen gauza handirik egin eta Iruritara bezala joan nintzen: 'Botako ditugu hamahiru bertsoak, atera dadila atera behar duena'. Iruritan ongi sentitu nintzen; Agoitzen, berriz, gaizki. Bosgarren bertsoan ustez hanka sartze bat egin nuen. Erraten digute bertso bat txarra botata ere segitzeko, hurrengoak inporta duela, baina puntuak jokoan daudenean zaila da eta kosta zitzaidan buelta ematea. Nolabait eman nion eta bukaeran puntuak adituta, gustura. Baina saioan sufritu nuen. Ez dut uste finalaurreko batean hainbertze sufritu dudanik. Ez saioan bertan eta ez aitzineko egunetan. Tentsioan egon nintzen eta ez dakit zergatik. Neure buruari erraten nion: 'Ez bazara pasatzen, astelehenean lanera joan behar duzu berdin-berdin. Lehen ere egon zara finaletik kanpo'. Baina halere bazegoen hor pasatu beharra.

Ez da gehiago presionatzeagatik, baina Euskal Herriko txapelketarako bost txartel ere jokoan daude.

Sailkatuz gero ilusioa egingen lidake. Behin kantatu dut, 2005ean, eta ez nuen gustura harrapatu neure burua, nahiz eta kanpotik erran saio polita egin nuela. Pasatuz gero aukera izanen nuke arantza ttiki hori kentzeko. Baina ez dut horretan pentsatu behar. Lehentasuna Nafarroako final polit bat egitea da, entzuleak asetzea, nire saioa egitea. Gero bertze bost joaten badira, doazela, seinale ona izanen litzateke. Ea saio polita ateratzen den. Duela bi urte aipatu ziguten denok eman genuela gurea. Jendea sentsazio onarekin gelditu zen eta hura ez zela kasualitatea izan berresteko ardura dugu. Bertze pauso bat eman eta errateko: 'Bai, bertsoak goiti egin du Nafarroan'.

XABIER TERREROS GARTZIA

«Gaiei buruz gogoetan pasatu dugu kantuan baino denbora gehiago»

Gogotsu, kontent eta ilusio handiarekin harrapatu dugu Xabier Terreros (Lesaka, 1981). «Komeni da burua tentsio puntu batekin egotea, azkar joateko. Ez diot beldurrik horri eta horren zain ere banago, neure burua lasaiegi ikusten dudalako. Tentsioa etorriko da bai ala bai. Beraz, ongi».

Zein asmo dituzu finalerako? Badakit klasiko bat dela, baina nire hoberena ematea dut helburu. Ofiziotan elkarrikketa ederrak osatzea gustatuko litzaidake. Gai aunitz suertatzen ari dira gogoetarako eta norbere pentsaera, ideologia eta mundua ikusteko eta ulertzeko manera, zeharka bada ere, sartzeko aukera ematen dutenak. Bertso eskolan gaien inguruko gogoetak eta iritzi trukaketak egiten pasatu dugu ziurrenik kantuan baino denbora gehiago. Hortaz, gustatuko litzaidake halako elkarrikketa goxo batzuk osatzea. Gero, bakarkako lanetan, ea zein den gaia eta norberetik kantatzeko aukera dagoen. Nik ongi pasatu nahi dut. Orain dela bi urte izugarri disfrutatu nuen. Badakit ordukoa errepikatzea zaila izaneren dela, atmosfera izugarri berezia zegoelako, baina gustatuko litzaidake aurten ere irribarre handi batekin ateratzea.

Gaiak aipatu dituzu eta interesatzen zait hori, aldatzen doazelako. Bertsogintza aldatzen ari den bezala, gaiak ere bai. Batzuetan potoloak dira, potoloegiak ere bai. Hizketarako zalantzak edo kontraesanak sortzen dituztenak. Haurdunaldi subrogatuarena datorkit burura. Ostatu batean zerbeza batekin aritzeko ere mila ertz ditu. Bertsogintzaren bilakaera hori nabaritzen da gaietan ere, ez agian plazan bezainbertze, txapelketako gaiek badutelako txapelketako kutsua.

Gai politikoen falta sumatu izan dut. Ez zaizu pasatu? Aurten nik kantatu dudana bi saioetan eta bertze batean egon naiz, eta ez da gai politikorik izan. Finalean uste dut bakarren

bat tokatuko dela, baina jendartearen joerak, lehentasunak edo agenda nondik nora doan horrek ere markatzen du eta politikagintzan aritzen diren talde edo erakundeen ekimena ez da agian handiena. Bertzelako eragile sozial batzuen dinamikak gain hartzen ari dira eta baliteke gaietan ere hala izatea.

Halere, finala egun seinalatuan izanen da, ETArekin armagabetzearekin batera. Biharamunean Korrika iritsiko da, gainera, Iruñera. Bertso finala bezala, gobernuen babesarekin oraingoan. Asteburu indartsua dator. Euskararentzako, kulturgintzarentzako bete-betea. Baionako ekitaldia, armagabetzearen gauzatze hori ere izango da eta bi horien tartean dago gure finala. Nafarroan gure finalak badauka indarra eta garrantzia. Badakit

sarreraren salmenta ongi doala, aurrekoetan baino hobeki, baina ez dakit, niri zalantza batzuk sortzen zaizkit, agian nire lehentasun eskala propioa dudalako. Iruditzen zait bai armagabetzea bai Korrika izugarri ekitaldi potenteak direla eta gu, tartean, hortxe egongo garela. Ziur, urtero izan duen bezala, bere tokia izanen duela.

Duela bi urte txapeldunorde izan zinen. Bada zure helburua txapela lortzea? Egia erran, ez. Ikusten dut bertsotan nire mailan ongi nabilela, oso ongi, inoizko maila onenarekin, eta gustatuko litzaidake hori ateratzea. Txapela opari handi bat da, baina ardura ere badakar: bertso saioak, horietan erantzun beharra... Horrek ekartzen du bertze konpromiso edo ardura batzuk utzi behar izatea.

Zortzi finalista zarete eta zortziak mutilak. Halere, Luzia

«Inoiz baino neska gehiago ditugu gaztetxoetan ere eta uste dut epe ertainera aldatzen joango dela finaleko argazkia. Hala ez bada, orduan bai, piztu beharko dugu alarma gorri-gorri bat»

Goñi 89 urteko bertsolariak jantziko dio txapela irabazleari. Zein gogoeta sortzen dizkizu horrek? Txapelketako antolatzaile taldean nago eta Luzia Goñik txapela jantzeko erabakia hartu genuen, hamarkadetan emakumearen isla delako. Talentu handia oholtzarako, baina hori garatzeko aukerarik ez. Hamarkadetan gizonezkoen mundua izan da bertsogintza, gainontzeko esparru gehienak bezala. Berak, inoren laguntzarik gabe, bere kabuz ikasiz, idatziz, gogoetak eginez, bakardadean, sortu ditu olerki sorta ederrak. Kaleratu ere berak egin zituen, noski. Berak egin du bere bidea, inoren laguntzarik eta babesik gabe, isilean, inoren errekonozimendurik gabe. Iruditzen zait merezi duen errekonozimendua eginen diogula berari eta historiaren itsasoan galdurik egonen diren Luzia Goñi guztiei. Gero, egia da zortzi bertsolariak mutilak garela. Barrutik ateratzen zaizun lehendabiziko gauza da: «Buf, berriz ere!». Mutilak eta gazte-gazteak ere ez. Gazte erraten digute 36 urte ditugunoi. Saioa Alkaiza finaletik hurbil gelditu da, duela bi urte bezala. Haurren bertso eskoletan gehienak neskak dira, baina gero nerabezaroan gutxiago dira. Azken urteetan inoiz baino neska gehiago ditugu gaztetxoetan ere, eta nik uste dut epe ertainera pixkanaka aldatzen joango dela finaleko argazkia. Hala ez bada, orduan bai piztu beharko dela alarma gorri-gorri bat. Uste dut badugula non gogoeta egin, non baliabideak jarri, identifikatzeko zer gertatzen ari zaigun. Badakit Bertsozale elkarteak bakarrik ezingo duela hori konpondu, jendartearen arazoa delako, baina eredugarria izaten ari dela iruditzen zait gogoeta asko egiten ari delako eta emakume taldeak bertsogintzaren inguruan hausnarketa gehien egiten ari direnak direlako. Espero dezagun oreka handiagoa egotea. Belaunaldi aldaketa ere eman beharra dago eta oholtzan eman nahiko nuke.



ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

«Bertsolari osoagoa ikusten naiz eta garapen hori azaldu nahi dut»

Eneko Fernandezek (Lesaka, 1977) sentsazio onak ditu. Lasai eta gogotsu sentitzen da. Inoiz ez zitzaion pasatu lehendabiziko fasean pasatu zitzaiona. Uhartan abestu zuen lehenengo eta hagitx-hagitx disgustura gelditu zen. «Sentsazio eskasekin, urduri, lotua, indarrik gabe...». Agoitzen kontent zen horri buelta eman ziolako. «Aldarte hagitx txar batetik heldu nintzen eta horri buelta eman nion. Nahiko lasai eta txukun aritu nintzen. Bertsotan badakit gauza batzuk hobetu behar ditudala, baina sentsazio orokorra ona

izan zen». Sentipen on horiekin goitituko da, hortaz, Anaitasunako oholtzara. «Inork ez dizu deus ziurtatzen horrekin, baina konfiantzarekin joatea garrantzitsua da».

Hirugarren txapelketa eta hirugarren finala duzu. Zuzara berriena kantuan, 2011n hasi baitzinen bertso eskolan. Bai, eta adinean denetan zaharrena naiz. Hagitz berezia da konbinazioa. Bertze gehienak haurretan hasiak dira kantatzen. Xabi Maia nirekin batera hasitakoa da.



Kuriositatea dut: nolatan hasi zinen helduaroan? Beti izan dut gustuko, baina inoiz ez nuen pausoa eman bertze gauza batzuk nituelako buruan. Lagun batekin solasean elkarrekin hasiko ginela erabaki

genuen. Apustu gisa jarri genuen: hurrengo ostiralean! Ni apuntatu nintzen, bera ez. **Hasi eta bi urtera finalera salto egin zenuen.** Egia erran, nire kasua berezia da

zentzu horretan. Justu hasi nintzen garaian helduen bertso eskolei indarra eman zitzaien, Bardoak txapelketarekin, eta gaztetan hasi ez zen jende dexente hasi zen bertsotan. Baina nire kasua da

Bere bertso lagunei bezala Eneko Lazkozi ere (Etxarri Aranatz, 1983) ongi etorri zitzaion astelehenean Anaitasunan, finalaren agertokian, biltzea, talde giroa sortzeko, batez ere.

Nola ikusten duzu finaleko zortzikotea? Ongi. Azken finaletatik ez da gehiegi aldatu. Xabi Maiak lehendabiziko aldiz kantatuko du, baina gainontzeko zazpiak aurreko finalean ere han ginen. Orokorrean bertso maila ona dugula uste dut eta orain behar dena da guztiok gure onenetik ematea. Hala final on bat egingo dugu.

Baduzu helburu berezirik finalerako? Zein asmorekin joanen zara? Asmoa ahalik eta bertso onenak botatzeko izan da. Ez dut neure buruarentzat helburu zehatzik markatu nahi. Nire onena eman eta horren ondorioz gero saritxoren bat iristen bada, ongi etorria izango da.

ENEKO LAZKOZ MARTINEZ

«Aukeraz disfrutatu eta ahalik eta bertso onenak botatzeko da asmoa»

Aurkezpenean aipatu zenuen sentsazio polit batekin gelditu nahiko zenukeela. Bai, azkenean lau finaletan kantatu dut eta zeure burua estututa joaten bazara zaila izaten da bertsotan gustura aritzea eta azkenean halako plaza polit batean kantatzeko aukera beti ez duzu. Pena da behin edukita sufritzen egotea. Bertan zaudenean gozatzen egotea pozgarriagoa da. Eta gozatzen baduzu normalean bertsotan ongi ari zarelako da eta horrek izaten ditu bere ondorioak.

Aitzinekoetan sufritzea pasa izan zaizu?

Azken finala oso gustura kantatu nuen, baina pentsamendu horrekin joan nintzelako pixka bat: Joan, aukera horretaz disfrutatu eta bertsotan egin. Oso oroitzapen ona daukat. Aldiz, duela lau urtekoan Euskal Herriko txapelketara sailkatzeko kontu hori nuen buruan eta nahi gabe neure burua behar baino gehiago estutu nuen. Kasik gehiago egon nintzen horretan pentsatzen zetorren bertsoan baino eta azkenean ez nintzen gustura aritu.

Bai. Gainera, gero ez zinen pasatu eta kolpea hartu zenuen. Bai, bai, gainera gero hori! [dio

barrez]. Gutxigatik kanpoan gelditu nintzen. Baina hortik ere ikasten da.

Aurtengo finala intentsitate ttikiagoz bizitzen ari zarela ere aditu dizut. Bai, duela gutxi alaba bat izan genuen etxean eta burua beste kontu batzuetara daukat. Lehen asko bizitzen nuen txapelketa, ia saio guztietan egoten nintzen. Aurtun, ordea, nire saioetara besterik ez naiz joan eta urrutixeagotik bezala segitu dut. Beste bizitzeko modu bat.

Grazia egin dit erraten zenuelako zeure burua urduri ez ikusita urduri jarri zarela. Bai, bai, bertsotan ongi egiteko tentsio puntu bat behar da. Oso lasai zaudenean burua ez da berdin martxan jartzen eta hain lasai egoteak larritzen ninduen gero agian behar adinako tentsio hori ez nuelako izango kantatzeko orduan. Gero oholtzara igo eta normalean triapak pixka bat nahasten dira.

paradigmatikoena zentzu horretan txapelketan emaitzak atera zirelako. Bertze kasu guztietan ez da pasatu. Xabi orain ailegatu da finalera. Nire kasuan lehendabiziko Bardoetan irabazi nuen, gero txapelketan finalera iritsi nintzen. Deigarria da sailkapenetan goian azaldu naizelako.

Emaitza onak eman dituzu eta aipatu duzu garapena erakustera zoazela finalera. Bertsotan hagitz espazio egokia harrapatu dut momentuan bilatzen nuenerako eta pila bat disfrutatzen ari naiz, baina ikusten ari naiz egindako lanarekin garapena nabarmena dela. Nahi dudana hori da, orain bi urte nintzena baino bertsolari osoagoa ikusten naiz eta nire garapen hori azaldu nahi dut. Denei gustatzen zaigu sailkapenean ahalik eta goien egotea, baina niretzat dena ondorio bat da. Hori dena ematen badut nire mailan kokatuko naiz. Ez dakit zein

izanen den, baina dagokidana. Hori bilatzen dut, urteotan izandako garapena erakustea.

Garapena zein zentzutun, bertsoen kalitatean ala gaiei heltzeko moduan? Bietan. Bai teknikoki bertsoa nola egin, errimen aberastasuna, bai gaiak nola hartu, elkarrizketak nola garatu... Alor guztietan. Gauza denetan bezala, lantzen duzun heinean garapena ikusten duzu.

Zein ariketatan disfrutatzen duzu gehien? Hasieratik normalean bakarka gehiago disfrutatu dut. Kostatzen zitzaidan ofiziotan elkarrizketa bat gauzatzea. Berandu hasita, nire bertsoa egiten nuen eta horretan kontzentratu behar nuen, kasik bertzeari entzun gabe. Orain ahalegin horretan ari naiz pausorik handienak ematen. Bertzeari entzun, hortik elkarrizketa bat egiten saiatu, erantzuten... Orduan, parekatzen

«Nafarroako bertsolaritzaren mailak orokorrean goiti egin du azken urteetan, niretzat nabarmen. Bertsolarien lanaren ordaina da. Zein hutsune ikusten ditudan? Kostatzen ari da pixka bat gazte berriak irtetea»

joan direla uste dut bakarkakoa eta ofizioetakoa. Orain bietan aritzen naiz gustura. Ofizioetan gusturago, agian.

Nola ikusten dituzu zure kideak eta orokorrean Nafarroako bertsolaritza? Zein indargune eta hutsune ikusten dizkiozu? Indarguneei dagokienez, mailak orokorrean goiti egin du azken urteetan, nabarmen. Nafarroako bertsolarien lanaren ordaina da. Zein hutsune ikusten ditudan? Kostatzen ari da pixka bat gazte berriak irtetea. Emakumeen aldetik afera konplikatuagoa da, baina bertsolaritzan ere eragiten du eta finaleko oholtza da horren adierazgarri. Pena bat da, baina arazo horren erroak ez dira bakarrik bertsolaritzakoak eta ez daude bakarrik orain. Landu beharreko gauza bat da. Hor ikusten ditut gabeziarik handienak. Bestela Nafarroako bertsolaritza nahiko osasuntsu ikusten dut eta indartzeko intentzioz.

Asteburu biribila izanen da Iruñekoa. Finala eta Korrika ongi etorriak izanen dira, eta ETaren armagabetzea ere izanen da Baionan. Zein gogoeta egiten duzu horren inguruan? Asteburu hagitz inportantea da. Baionakoa, dudarik ez, ekintza nabarmena da. Iruñeari dagokienez, euskaran zentratutako asteburu hagitz potentea izanen da. Nafarroan beharrezkoak dira oraindik halako ekintzak, euskara indartuko dutenak. Asteburu honetan elkartuko dira euskararekin lotutako ekintza potenteenak izan daitezkeenak. Udalaren eta nafar Gobernuaren babesarekin. Besta handi bat da, baina abagune garrantzitsua ere bai, aldarrikatzeko eta euskarari bultzada handi bat emateko. Zer garen azaltzeko, ze indar dugun, bagarela norbait Nafarroan errateko eta euskaraz bizi nahi dugula adierazteko. Jendea animatu nahiko nuke saiora etortzera.



Lehendabiziko finalaurrekoan, Beran izan nintzen eta animoa baxu samar sumatu nuen bai bertsolarien artean bai entzuleen artean. Galdetu nahi nizun zein sentsazio izan zenituzten zuek oholtzan. Bai, nahiko saio arraroa izan zen. Ni pertsonalki nahiko arraro sentitu nintzen eta publikoa ere hotz samar sumatu nuen, beharbada oso erosoak zirelako aulkiak edo ez dakit zergatik. Denon artean kutsatu zen halako giro arraro samar bat. Nik ez nekien ongi ala gaizki ari nintzen ere eta gero kartzelara joan ginenean, ingurukoekin hizketan, beraiek ere antzeko sentsazioak zituztela ikusi nuen. Nahiko giro hotza egon zen, baina saioa hain txarra izan zenik ez dut uste.

Bertze saioa non kantatu zenuen? Lakuntzan, eta han oso giro

polita izan zen. Saioa nahiko bizi eta polit joan zen.

Zer nolako finala aurreikusten duzu? Anaitasunan ez da girorik faltako. Nik duela lau urtetik dudan oroitzapena da plaza oso beroa izan daitekeela, baina agian duela lau urte ez genuen sekulako bertso saioa ere egin. Ez zen agian egin genezakeen mailakoa izan. Eta nik pertsonalki oso oroitzapen ona ez daukat alde horretatik. Baina plaza bezala giroa sortzeko oso ona dela iruditzen zait. Duela bi urte giroa oso ona izan zen eta saioa ere ona izan zen. Azkenean publikoa pozik egoteak bertsolariei eragiten die eta bertsolariek ongi egiten ez badute publikoari ere eragiten dio. Denon arteko lan bat da finean. Bertsoa komunikazioa da eta guztiok egiten dugu jaso eta eman. Kutsadura horretan etor daitezke gauza onak eta txarrak.



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Emak Bakia

Oskar Alegria zuzendari iruindarraren «Emak bakia baita» filmaren bukeran, erbi batek bere eguneroko joan-etorrietan egindako ibilbidea ageri zaigu mapa baten gainean marrazturik, filmaren nolabaiteko «making of»-a.

Horrela azaltzen du zuzendariak elkarriketa batean erbienganako duen debozioa: «Erbia, bistan da, untxiaren familiar dago, baina untxia etxekotzen ahal da; erbia, ez. Ber gauza gertatzen da oreinarekin eta orkatzarekin: oreina domestikatzen ahal da; orkatza, nehoiz. Orkatza edo erbia harrapatu eta kaiolan sartzen baduzu, kolpeka hasiko da sarearen kontra, hil arte. Erbia, beraz, oso salbaia da, eta nik maite dut hori. Gero, untxiak lurpean jaiotzen dira, eta begi itxiekin. Erbiak, aldiz, begiak zabalik eta lurrazalean jaio ohi dira, erne beti. Erbiek ez dute nehoiz leku berean lo egiten, eta beren eguneroko ibilbidea kaos bat da, ez da lerro zuzena».

1926. urtean, Man Ray artista dadaista estatubatuarrak «Emak Bakia» izeneko film laburra errodatu zuen oporraldia pasatzeko Lapurdiko kostaldean zeukan izen bereko jauregian [<https://goo.gl/T43g4X>]. Jauregia Biddarten dago, «parlamentia» izeneko muino batean, eta joan den mende hasieran eraiki zuen errumaniar aristokrata batek. Handik ehun urtera ia, etxearen bila ari zela, bidera agertutako istorioei tiraka osatu zuen bere pelikula Alegriak [<https://goo.gl/mm-luCd>].

Bilaketa baten kontakizuna da Alegriarena, eta ezustekoz beteta dago. Etxearen jabea izandako errumaniar noblearen bilobarena da horietako bat: Maria Despina zu Sayn-Wittgenstein printzesa errumaniarrarena. Inurrien usaimenari buruzko tesia egin zuen biologoa eta Nabokov idazlearen lehengusina izateaz gain, gaztetan Errumaniako ping-pong txapelduna ere izan zen pelikulan agertzen den 94 urteko emakumea. Adibide bat baino ez da beste guztien artean. Filma, erbi ba-

ten antzera, alde batetik bestera saltoka baitabil etengabe. Hemendik hara garabiltza sinestezinak diruditen gertaera eta bizipenen atzetik.

Inguru hartako etxe bakoitzak istorio harrigarri bat gordetzen du bere baitan zuzendariaren arabera. Bizitza osoa hango etxeei buruzko filmak egiten pasata ere, ez lioke kontatu beharreko guztiak kontatzeko astirik eman-go. Abadia jauregitik hasita; 1992an, Bartzelonako Olinpiar Jokoak hasi baino hilabete batzuk lehenago, ETaren garai hartako zuzendaritzaren atxilotetaren lekuko izan zen etxeraino; bada non arakatu Lapurdiko kostaldean.

Zer diren gauzak. 60 urteren buruan, ETak bere armak entregatzeko eguna ailegatu den honetan, «Emak bakia baita» filma etorri zait akordura tupustean. Erbiaren joan-etorriak irudikatzen dituen maparekin gogoratu naiz. Eta nire bizitza zedarritu duten une eta gertaera asko eta askorekin ere bai. Kontzientzia politi-

koa dudanetik, ez baitut ezagutu gaurdaino, hiltzea gaizki dagoela eta ETak armak entregatu behar dituela entzun ez dudanez egunik. Eta orain, bitxia bada ere, inork ez du arma horiei buruz ezer jakin nahi.

Hala da, bakea asko predikatu baina bakea egiteko artisauek behar dituen herri batean bizi naiz. Errepikatzearen errepikatzez, hitzak desegiten diren leku batean zahartzen jarraituko dut. Ez nintzen heroi jaio. Ez nintzen biktima jaio. Egin nuena ez zen izan beti egin behar genuena. Superfizie irregular batean marra zuzen bat marraztea ezinezkoa dela jakitun izateko beste bizi izan dut. Ez dut bakerik nahi, bakea ez delako libertatea. Nik sinpleki, erbi izaten jarraitu nahiko nuke aurrerantzean. Helmuga baino, ibilian egiten dugun bideak utzitako arrastoa baita gerora geratuko den bakarra. Eta oraindik, zorionez, kontatu gabeko etxe bete istorio falta zaizkigu idazteko. •



AMONDARAIN

{ koaderno } **Garazi Goia**

Seriotasun ezaz

Michel Houellebecq idazle frantsesa “Lanzarote” izenburudun liburuarekin eza-gutu nuen duela hamabost urte inguru. Lagun baten gomendioz, liburu hori baino askoz ezagunagoa den “Les particules élémentaires” erostera joan nintzen dendara, eta, ale gehiagorik gelditzen ez zitzaenez, “Lanzarote” aukeratu nuen. Nire iritziz ez da idazlearen lanik hoberena, baina, hala ere, bere estilo eta ikuspegi polemikoaz ohartzeko estreinako adibide aproposa izan zen.

2000. urtearen atarian, globalizazioaren eta terrorismo fundamentalistaren arriskuak azaleratzen ari direnean, Lanzarote uharteak islatzen duen urruntasun eta hustasunaren itzalean, bizitza arruntak dituztenen behaketa bat eginez, kontaketa erratikoa dela esango nuke. Bere idatzietan ohikoa den misantropia eta hedonismoa bultzatzen duten protagonistekin.

Hala ere, beste liburu askotan ere presente daude arrazismo eta islamofobiari buruzko hausnarketa probokatzaileak ez dira muturreraino eramaten. Turista ingeles, belgikar eta luxenburgotarrei buruzko destaina bat edo beste kenduta. Eta, noski, sexu bereko bikote bat ere ezin zen falta narrazioan.

Lanzarote aukeratzeko arrazoia zein izan ote zen pentsatu nuen. Idazleak azaldu nahi zuen ikuspegi fatalista horren emaitza ongi islatzea bideratzen zuela akaso.

Astebete Lanzaroten pasa berria naiz; oportetara joan aurretik beti egiten dudana liburu aukeraketa errituala kontu handiz egin nuen. Eta, berriro ere, Houellebecquen “Lanzarote” irakurtzeko kuriositatea izan nuen. Liburuko fikzioa nire ikuspegia kontrastatzeko. Edo, idazlearen hasierako urteetako idatziak oraingoe-kin alderatzeko –komunikabideen kritika zorrotzen erasopean–, behin eta berriz errepikatzen diren lekuz kanpoko probokazioek eremu arriskutsuetara eraman duten idazlearen alde maleziagabe baten bila apika.

Hoteleko barrutik atera gabe, artifizialki sortutako errealitate partikular hartan topiko guztiak betetzen

ziren: gosaltzera bidean xukaderak hamaketan jartzen zituzten alemaniarrek; laurogeita hamargarren hamarkadan modan zeuden azal beltzaranak, koko olio distira aterata, kolorea oraindik gehiago nabarmentzeko; baina, batez ere, marka gorriak harrotasunez erakusten zituzten hainbat eta hainbat turista; buffetaren aurrean instintu fisiko guztien aurka galtzaile rolean baina errudun sentitu gabe zebiltzanak (finean, oportetaren zeuden eta edozein salbuespen zilegi zen); galtzerdi zuriak eta sandaliak; goizeko hamarretan garagardo pitxerkadak edaten ari zirenak; igerilekuko aerobik saioak, gosariko betekada oraindik ezin kenduta egon arren, bazkaria ere justifikatu ahal izateko ariketa eginez. Egoera eta pertsona horiek guztiak leku berean zeuden, eta elkarren artean bateragarriak zirela ziruditen.

Behin-behineko diskoteka hartan egin genituen dantza saioen ostean, aurrez «nik ez dut inoiz horrelakorik egingo» esana nintzela gogoratu nintzen. Eta, aldi berean, aipatutako errealitateak baduela bere erakargarritasun bat ohartu nintzen

Herri baten egitura imitatuz eta beharrezko diren zerbitzu guztiak eskura izanik, gehiengo pozik zegoen bertan, bestelako kuriositaterik gabe, errealitate hartatik kanpora begiratzeko inolako urgentziarik sentitu gabe. Eta gisa horretako protagonisten ondoan, hoteletik ateratzeko “ausardia” izan zutenak zeuden bestalde. Ez zegoen tarteko beste ezer. Zuria edo beltza. Beltza edo zuria.

Haurrentzat jarritako behin-behineko diskoteka hartan egin genituen dantza saioen ostean, aurrez “nik ez dut inoiz horrelakorik egingo” esana nintzela gogoratu nintzen. Eta, aldi berean, zutabe honetan deskribatutako errealitateak baduela bere erakargarritasun bat ohartu nintzen. Bizitza seriotasun gehiegiz ez hartzea ere batzuetan beharrezkoa izaten da-eta. •

GIMNASIA BERDEA

Lorezaintza ekologikoaren bidez, osasuna hobetzea eta herria edertzea helburu

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Osasungarria da eta ukitu freskagarria dauka Gym Berdea egitasmoak. Larrabetzun iaztik dastatzen dute, astean behingo bi orduko saioetan. Adina ez da arazoa, ezta sasoia ere; parte hartzen duenak, ekolorezaintza ikastearekin batera, osasuntsu bizitzen ikasten du. Ikasitakoa herrian bertan jartzen dute praktikan, gune publikoak edertuz.

O sasuna da gako Gym Berdea egitasmoan, eta ez parte hartzaileena bakarrik, natur ingurunearen osasunean eragitea baita bigarren helburua. Larrabetzun jarri zuten martxan iaz Gym Berdearen lehendabiziko esperientzia. Udan atseden hartuta, otsailetik abendura izaten dira astean behingo saioak. Parte hartzeko adin mugarik ez dago, ezta prestaketa fisiko berezi baten beharrik ere; aniztasuna da proiektuaren beste altxorretako bat.

Horrenbestez, Gym Berdeko parte hartzaileen artean ez dago profil zehatzik. Hori bai, gehienak emakumezkoak izan dira orain arte. Iaz hiru gizon eta hamar emakume jardun ziren. Aurten lau gizonak eta zazpi emakumek osatzen dute taldea. Keko Alonso Gym Berdea proiektua bultzatzen duen bio-

logoa da. Azaldu duenez, parte hartzaileek askotariko egoerak dituzte. «Jende ezberdina dago, momentu honetan apur bat trabatuta dagoena bizitza proiekturik topatzen ez duelako, lana aurkitu ezinik dabilena, erretiraturia, etxetik kanpoko lanarekin eta beste pertsonen zaintzaren zamarekin gaindituta dauden emakumeak...»

«Talde jarduera da eta edozein lanbide, ideologia, adin edota erlijio egon daiteke», esan du. Izan ere, «ezberdinen nahasketa» da aldarrikatzen den balioetako bat. «Herria gune berdeen bidez edertu nahia da» lagun ezberdin horiek batzen dituen.

LOREZAINZA EKOLOGIKOA

Lorezaintza da, zalantzarik gabe, proiektuaren zutabe nagusia, eta ez da edonolako lorezaintza Gym Berdeak lantzen duena. Alonsok azaldutakoaren arabera, «ekolorezaintza», «naturaren aldeko» interbentzioak. Gehien-

bat bertoko espeziekin lan egiten dute, eta lore ederrez beteriko gunek sortu baino, bertoko sistema naturalarekin bat egiten duten gunek sortu nahi dituzte.

Ongarri organikoak erabiltzen dituzte, konposta... eta oso kontuan hartzen dituzte intsektuak eta oso eskala txikian lurrean dagoen sistema oso bat babestu behar dela.

Kontatu duenez, taldean badago lorategia daukan jendea zein kaktus bat bera ere izan ez duena. Orokorrean, lehenengo urtean oinarriak jartzen dira, baina ez dago arau zorrotzik edukiei jarraitzeko; bakoitzak bere erritmoa eramaten du eta aukeren eta ahaleginen arabera-koak dira emaitzak.

Taldean eta maila pertsonalean egindako balorazioetan nabarmendu omen da ikastarok balio izan duela zenbait ohitura osasungarri berreskuratzeke, baita ametsak ere,

norberaren ongizatean egindako aurrerapausoak. Ideia horrekin bat dator Leire Fresnedo Gym Berdean izandako esperientzia kontatzean: «Ikasi dut lorezaintza ekologikoa, nola landatu eta loreak zaindu ongarri industrialak erabili gabe. Ikasi dut zein inportanteak diren zomorroak lorategian, arbolen izenak euskaraz... eta horretaz aparte, burutzen diren lanak sasoian ipintzen zaitu modu batean edo bestean».

Nabarmendu duenez, bestelako irakaspenik ere jaso du, naturaren garrantziaz jabetzeko, klima aldaketa eta arbolek duten papera kontuan izateko... «Kontzientziatzen laguntzen du, naturarekin daukagun harremanari begiratuta, herria zaindu eta txukuntzeko, herriaren kalitatea hobetzeko, parkeak hobetu eta edertzeko...» eta, gaineratu duenez, «pazientzia lantzen» ere ikasi du, «lorezaintzak mediatzio puntu bat baitauka».

Herriko gune berdeen egindako interbentzioak udal arduradun politiko eta teknikariekin planifikatzen dira aurretik. Alonsok gogora ekarri du lehenengo interbentzioa herriko erreka baten inguruan izan zela, zumeak, lizarrak eta haltzak zeuden toki batean. Ur-bazterreko landaretza gunen hori aberas-teko ia ehun zuhaitz landatu zituzten.

Lerro hauen azpiko irudietan, Gym Berdea egitasmoa kideak jardueretako batean. GYM BERDEA



IRLA NATURALAK HIRIGUNEAN

Asmoa herrigunean irla naturalak bultzatzen saiatzea zen eta, Alonsok azaldu duenez, egiten den horren garrantzia ez da beti ulertzen. Gazteek hobeto ulertzen omen dituzte mota honetako interbentzioak, baina adinekoei gehiago kostatzen zaie. «Arbolak ez du ezer ematen eta argia kentzen du, traba egiten du, batzuen ustez, kontuan hartu gabe arbolarik gabe gero abuztuan ezin zarela etxetik irten gerizperik ez dagoelako, edo eltxo eta zerrenen predatzaile-rik ez dagoela».

Ikastaroa izaera komunitarioa hartzen joan da zenbait jarduerarekin. Orain, esaterako, eskolako ikasleekin habiak egiten ari dira. Konturatu ziren Larrabetzun habia egiten zuten oso hegazti gutxi zegoela, ziur asko horretarako zulodun zuhaitz zahar askorik ez dagoelako. Eskolan, teknologian lantzen dute jarduera hau, eta Gym Berdeko parte hartzaileekin batera jarriko dituzte habia berriak.

Ariketa fisikoaren arloa konplikatuagoa da adin eta sasoi maila ezberdinekoen artean. Alonsok dioenez, *frisbia* da joko asko ematen duen elementua, inpakturik ez dagoelako eta ahalegin fisikoa norberaren gaitasunen arabera izan daitekeelako.

Garrantzi handia ematen die

Larrabetzun gauzatu da lehen aldiz Gym Berdea. Esperientziari erreparatuta, osasuna ikuspegi integral batekin lantzen da, arlo fisikoa eta emozionala kontuan hartuz.


«Ekolorezaintza» herriko guneetan jartzen dute praktikan eta «ez lore ederrak landatzeko, baizik eta ekosistema naturalak babestu eta indartzearren»

luzaketei, ez baitago ohitura handia horiek egiteko, batez ere adineko jendearen artean. Fresnedok baieztatu duenez, beroketak egitea funtsezkoa da, «askotan makurtuta» egon behar delako, «palarekin zuloak egin» eta «gimnasiak ongizate orokor bat ematen dizu beti».

Alonsoren esanetan, batzuen ustez, denbora galtzea da, emaitzak ongizate pertsonalaren aurretik jartzen dituztelako, eta askok auzolan kutsua hartzen omen diote egitasmo honi. Bere hitzetan, hala izan daiteke, bai, kanporako nahi diren emaitzak barruko ongizatearekin lotuta daudela ahaztu gabe.

Hain zuzen, Lakuako Osasun eta Lan eta Gizarte Politika sailen laguntza du egitasmoa Euskadi Lagunkoi programaren barruan, eta ekain aldean ekingo diote udalerrri berrien hautaketari.

Gym Berdeko partaideak une ezberdinetan, eta Larrabetzun bertan zenbait gunetan egindako lana.
GYM BERDEA





Unai
ITURRIAGA

{
iRRITZIA:

AK-BO



Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua



Ni (gu) ere bakegile

Saioa Iraola

Aste honetan, egunkarietan irakurtzen aritu naiz gaurko egunari begirako kontuak eta, bereziki, “bakearen artisau” ugariri egini-ko elkarrizketak.

Pozik nago, ikusten dudalako bakearen inguruko gogoeta interesgarriak eta beharrezkoak ari garela proposatzen: «bakea ez da dekretuz erabakitzen, eraiki egiten da»; «zauriak sendatzen ez baditugu, ez gara sekula bakean izanen»; «jendarte adiskidetzeara»; «presoak itzultzea»; «gizarteko sektore guztiak inplikatu behar dira prozesuan»; «bake eta bizikidetzaren prozesu bat da, gertatu den guztia eta biktima guztiak aitortzeko»...

Beraz, ez dut zalantzarik gaurko eguna zinez garrantzitsua dela, behin betiko eta egiaztatutako armagabetzea beharrezko osagaia baita ondorengo prozesuetarako. Hortaz, hemen ez da ezer amaitzen, ETA erakundea armagabetuko den arren, bake eta bizikidetzaren prozesua abiarazi behar dugu, biktima guztien aitortza, erreparazioa, memoria, justizia eta preso eta iheslarien etxeratzea oinarri izango dituen. Bide luzea dugu aurretik. Feministontzat biziki garrantzitsuak izango dira hemendik aurrera martxan jarriko ditugun prozesu partekatuak, bakea emakumeen zapalkuntza oinarri finkatu da eta ez gaude prest patriarkatuaren bake faltsuan bizitzen jarraitzeko.

Bost urte eta erdi pasa ondoren, eta estatuen immobilismoaren aurrean, gizarte zibilak erakutsi du borondatearekin, elkarlanarekin eta konpromisoarekin erronka handiak (ETAren armagabetzea, kasu) lor daitezkeela.

Horregatik, gaur, Baionan izango naiz (gara) beste milaka lagunekin batera, prozesu honetan parte izateko eta bizikidetzaren prozesuak denontzako bakea ziurtatu behar duela uste dudalako; eta apustu horretan, irizten diot gizarte zibila osatzen dugun subjektu guztiok aintzat hartu eta eragiteko ahalmena izan behar dugula. Atzo, gaur eta bihar ere feministok *#bakegile*. •

Ispiluak

Joxean Agirre

Ispiluaren aroa» deitzen dio Jacques Lacan psikoanalistak 6-18 hilabete artean umeak ispiluan ikusten duena bere burua dela jabetzen hasten den sasoiari. Ispiluak XIX. mendearen amaieran ugaritu zirela kontuan izanik, ez dakigu aurretik nola arraio iristen ziren umeak beren irudiaz jabetzera, zilar eta metal distiratsurik ez zen etxeetan, behinik behin. Baina arazo hori alde batera utzita, egia izan daiteke tresna horrek haurtzaroan gure nitasunaz jabetzen laguntzen digula, inoiz ispiluari begira egon ginenik oroitzen ez badugu ere.

Nago ez ote den antzeko zerbait gertatzen herrialdeekin ere eta ez ote dugun azken urteotan ikasi nolakoak garen Quebec, Eskozia, Irlanda edo Kataluniari begiratuz. Nago baita ere, ez ote diguten aurretik beste hainbat ispiluk gure irudia desitxuratu, gu-

rearen antzekotasunak herri kolonizatuetan aurkitu uste izateraino, eta nago, azkenik, ez ote garen geure konplexuak gainetik kentzen hasi ere duak herrialde garatuagoe-tan ikusten hasi ginenetik.

Ispiluak ispilu, aberriak badu osagarri utopiko bat. Eduardo Txillidak Pili Beltzun-tze emaztearekin egin zuen bidaia bat etorri zait gogora. “Zeruertzari gorazarrea” es-kulturarekin obsesionaturik zebilen eskultorea eta Britainiatik Gijoneraino etorri ziren, itsasertzari jarraiki, harentzat ko-kaleku egoki bat aurkitzeko asmotan. Berak kontatua da eskultura hori jarri ahal izate-ko kokapen on bat aurkitzen zuten bakoit-zean militarren gotorlekuren batekin egi-ten zutela topo. «Gotorlekuak zeruertzaren kontrolatu egin nahi du eta nik gorazarre egin nahi nion. Nik gizakia jarri nahi nuen

zeruertzaren aurrean, ikuskizun horrek txundi zezan, zeruertzaren harrapaezina baita, existitu ere egiten ez dena, hurbiltzen ga-tzaizkion neurrian desagertu egiten delako edo aldatu. Behin baino gehiagotan pentsa-tu izan dut zeruertzaren izan daitekeela giza-kiaren aberria», zioen eskultoreak.

Ederra da definizioa, iradokitzailea, baina pitin bat hutsala ere bai. Gotorlekuak maite dituztenentzat armadak, banderak eta ere-serkiak dira aberria. Guk herrialde garatue-tako ispiluei begira amesten dugun aberria, aldiz, eraiki behar den zerbait da. Abantailak ditugu horretan: sitsak jandako estatu zaharkituak dituzten herrialdeetan nekeak dituzte aberria eraberritzen. Zenbatenaz ederragoa den oinarrietatik etxe berria eraikitzea. Katalunian edo Eskozian ari dira. Gu zergatik ez? •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Sukalde bat herriarentzat

Herriaren ekonomia lehen sektorearen bitartez indartzeko helburuz, Nagusien Egoitzako sukaldeak «Udal- Sukalde» bihurtu eta egoitza bera zein parez pare (5 metro eskasera) dagoen eskola-jantokia hornitzeko proiektu piloturako diru laguntza jaso zuen Urduñako Udalak 2010ean. Sukaldeak tokiko ekoizpenarekin –ahalik eta maila handienera ekologikoa– eta tokiko merkataritxikiekin lotzea zen xedea. Sukalde zentral bati eskatzen zaizkion baldintza higieniko-sanitarioak betetzeko lanak burututa, 2015ean nagusien egoitza eskema honetan lanean hasi zen. Eskola-jantokia –Hezkuntza Sailak 2015ean jantokien kudeaketa propioa aztertu asmoz onartu zituen lau proiektu pilotuetako bat izan arren– ezin izan da oraindik Udal Sukaldetik hornitzen hasi. Osasun Publikoaren Sailarekin dauden interpretazio-arazoak daude tartean.

Toki berezia da Urduña. Bizkaia izanik, alde guztietatik muga egiten du beste lurralde batzuekin: iparralde, eta hego-ekialdetik, Arabako Aiaraldearekin; hegoalde-mendebaldetik, Burgosekin. Ura duena da. Nerbioi ibaiaren iturburuko ur jauzi ikusgarritik oso gertu, Gorobel (Salvada) mendilerroaren pareta altuek inguratzen duten bailara zabal batean kokatua dago. Xistera erraldoi bat bailitzan, mendebalde eta hegoalderantz, Txarlazo, Fraideburu, Tologorri... lerrotak doaz, gerrira arte pagoz estalita dauden kareharrizko horma pikoak eratuz. Lautadan, zereal landaketak, frutadiak, mahastiak eta belardi zabalak. Ganadua nonahi. Gorobelen lepoetan, mendi-larre komunalak, inguruetakoa azienda garrantzitsuenentzat udalekuak.

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA EKOLOGIKOA

Toki bukoliko asko daude Bizkaiko txoko honetan. Eta hau horrela da, hein handi batean, lehen sektoreak oraindik ere badielako garrantzia Urduñako ekonomian. Ez baitago besterik: industrialderik apenas baduen (eta ezin daitezke berriak eraiki, nekazaritzarako babes bereziko lurren izaera baitute Urduñako lursailek); zerbitzuak egon badaude, baina beraien “merkatua” oso mugatua dago urduñarrak baitira bezero ia eskusiboak. Hori bai, nekazaritzarako aukera asko eskaintzen ditu.

Hain zuzen ere, herriko lehen sektorea indartu eta biziberritu asmoz sortu zen,



Ainhua BASARRATE ASTOBIZA

2006an, Ekoizpen Urduña bulegoa. Iraunkortasunaren bidetik landa eremuko ekonomia sustatzeko helburuarekin jaio zen. Ekoizpen ereduak aldatzeko eragin, eta ekologikoa zabaltzeko da bere lanetako bat. Horretarako, ikastaroak, tokiko zein nazioarteko topaketak, bilera teknikoak, ikerketa parte hartzaileak... antolatzen dira bulegotik. Lan honen ondotik etorri dira 10 base-ri urduñarrek eskatu eta jasotako ziurtargiri ekologikoak. Txahalak, barazkiak, bildotsak, fruta eta fruitu txikiak, marmeladak, arrautzak, barraskiloak... bertoko produktu ekologikoen erakusleho polita egin daiteke Urduñan gaur egun.

Bertoko produktuaren balioa nabarmentzea eta ikusgarritasuna ematea da bere beste funtzioetako bat. Bertoko ekoizpenak jendarte zabalarik eta naturari eskaintzen dizkieten onurak bistaratzen saiatzen da Ekoizpen, aldian behin antolatzen dituen Foro Agroekologikoen bitartez, herri bazkarietan tokiko produktuak

baliatuz, bi astean behin herriko plazan azoka antolatuz... Kontsumoa sustatzea ere bada bulegoaren betebeharrak bat. Horretarako, jendartearen kontzientziazio mailan eragiteaz gain, kontsumo taldeak sustatu ditu, baita ikuspegi estrategiko eta antolakuntza konplexuagoa duen beste proiektuen bat aurrera eramanez ere, Udal Sukaldearen proiektu pilotua kasu.

UDAL SUKALDEA, HERRI PROIEKTUA

Egun, Urduñako eskolak eskaintzen duen jantoki-zerbitzua “office” batean ematen da. Hau da: eskolak ez dauka sukaldaririk, horrenbestez, sukaldaritza kolektiboko enpresa bat da zerbitzuaz arduratzen dena. Urduñako Guraso Elkarteko kide Cristina aditza eman duenez, egunero Zamudioetik (Bizkaia) dator janari prestatua. «Goizeko lauretan prestatzen dute Urduñako eskolan eguerdian banatuko den janaria, lehengaiak... batek daki non ekoiztiak izango diren. Janari prestatua

kamioietan ekartzen dute, kontenedoreetan, eta ‘office’-ean ematen da. Kalitateaz aparte, planteamendu honek jantokiak elikadura arloan bete beharko lukeen hezkuntza-funtzioa lantzeko ere ez du inongo aukerarik ematen. Gurasoon iritzia da eskola-jantokia zerbitzu soil bat baino gehiago dela: batetik, kalitatezko janaria eskaini behar du eta, bestetik, sasoi bakoitzeko janari ezberdinak ezagutu eta preziatzeko baliabidea ere bada».


Agerikoa da janaria kontsumituko den kokagunetik zenbat eta hurbilago prestatua izan, orduan eta kalitate hobea izango duela. Are gehiago, tokiko lehengai fresko eta ekologikoez hornitua bada. Erabat prestatua dagoen Udal Sukaldeak bost metro eskasera izanda, zentzu guztia dauka janaria bertan prestatzeko. Baina interpretazio tekniko batek bost metro horiek izugarri urrutiratzen ditu eta Hezkuntza Sailetik onartutako eskola-jantokiaren proiektua martxan jartzea galarazten du.

Udal Sukaldeak herri proiektua da, urduñarrak Urduñako ekoizkin fresko eta ekologikoez hornitzea helburu nagusizat duena. Jendartearen osasunean, tokiko ekonomian, paisaiaren mantentzean eta ingurumenaren zaintzan eragiten du. Haur eta nagusientzat elikadura egokiena eta zentzudunena bilatzen du. Horregatik, herri oso bat du atzetik, joan den ostiraleko kalejiran nabarmen gelditu zen bezala, non ume zein heldu, guraso, seme-alaba eta aitona-amonek hiriko kaleak modu alai eta aldarrikatzailean hartu zituzten. Beraien elikadura beraien baliabideekin kudeatzeko aukera izatea eskatzen dute, honek Urduñaren herrigintzarako daukan garrantziaren jakitun. Beharrezko guztia prest daukate, baina ez dute behin betiko baimenik jasotzen. Alta, Urduñako Udal Sukaldearen tankerako azpiegiturak martxan daude Frantzia, Italia, Katalunia... eta oinarritzko araudi higieniko-sanitarioa berbera da.

Euskal Herrian agroekologia garatuko bada, Urduñakoa bezalako proiektuen eskutik izango da. Urduñako herriarrak, baita Euskal Herriko ekoizpen ekologikoaren sektorea ere, oztopoak gainditu eta, behin betiko, herriak bere sukaldeak izatearen zain daude.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua



Iñaki Gonzalez-Oribe, bere estudioko sarreran. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti IÑAKI GONZALEZ-ORIBE

Hirurogei urteen bueltan, errenazentista-ikasle honek, arte diziiplina askotan «ahalegindu» ondoren, koadro itxurako eskulturak egiten ditu, eta poesia bisuala. Iñaki Gonzalez-Oribe gasteiztarraren helburua bere obrarekin pozik egotea da. Ez dago horren pozik, ordea, teknologia berriek artean izan duten eraginarekin, ezta kudeaketa publikoarekin ere.

Hiru dimen-
tsioko koa-
droak egiten
ditu. Edo koa-
dro itxurako
eskulturak,
ukitu edo, seguruenera, etorri
oteizarra dutenak. Ez dira ez pin-
tura ez eskultura, edo pintura
eta eskultura dira, hirurogei ur-

teen bueltan pilatu duen presta-
kuntzak eta eskarmentuak artis-
ta eraman duten adierazpidea.
Diziiplina guztietan «ahalegin-
du» denez, Iñaki Gonzalez-Oribe
diziiplina anitzeko artista dela
esan beharko genuke, baina be-
rak GAUR8rekiko solasean dioe-
narekin bat, egokiago dirudi
errenazentista-ikaslea esatea.

Gaztetan hasi zen pintatzen, lehenengo kubismoak eraginda, ondoren arte kontzeptualera eta beste zenbait arte korrontetara jo zuen, beti ere bere ikusmol-dea ezarriz eta modetatik ihesi.

Arte plastikoak, diseinu grafi-
koa, marrazketa teknikoa, publi-
zitatea eta beste hainbat jakin-
tzagai ikasi zituen. Publizitate
agentzia bat izan zuen hamabost
urtez, eta ez du utzi mundu hori,
orain freelance moduan jarrai-
tzen baitu. Bestetik, Informazio
eta Komunikazio Teknologien
Ikastegian seinalaztapen minte-
giak eman ditu, eta Mutrikuko
bide seinalaztapena egin du. Bai-
na artea da bere grina, baita bere
kezka ere. Eta bere lana. Izan ere,
bere obrak ez ezik, arte ekital-
diak antolatzeak eta erakusketen
komisariotzak ere estu lotzen
dute artearekin.

Ez zuten asmatu gaztetako
ikastetxeko fraideek artea ez zue-
la ogibide izango esan ziotenean.
Haietako zenbaiten karikaturak
egin zituen, eta besteren batek
horiek ikusita esan zion berari
ere egin behar ziola. Ez zuten
fraideek asmatu, eta bide luzea
egin zuen. Hamaika erakusketa-
tan parte hartu du, bakarka zein
askoren artean; hamaika sari ja-
so; Alaves futbol taldearen Baba-
zorro maskota diseinatu zuen,
eta Iñakiren lanik ezaguneneta-
koa da, beretzat bitxikeria baino
ez den arren. Euskal Herrian Eus-
karaz, AEK, Korrika, Martxoak 3
Elkartea eta beste hainbat herri
mugimenduk ere badute artista
gasteiztarraren obraren berri,
haien ekimenetarako kolabora-
zio ugari egin izan baititu.

Ez da harrigarria, hortaz, Iña-
kik artistaren konpromiso sozial
eta politikoa aldarrikatzea. Zeha-
tzago, altruismoa. «Gutxiago
izan dugun garai batean altruis-
tagoak izan gara. Gaur ez da ia
halakorik existitzen». Guztiaren
truke dirua eskatzen dela dio.
Berak norberaren errealizazioan
sinesten du, horrela ulertzen du
bere jarduna, inondik inora ez
lehia gisa. «Oteiza bat behar da.
Badakizu zergatik? Protesta egi-
teko moduagatik», dio ia arnasa-
rik hartu gabe, eta jarraian Chi-
llida eta haren logoak dakartza
hizpide. «Non dago horrelako


jendea?». Lehen artistak harre-
man hurbilagoa omen zuen jen-
dearekin.

UKI DAITEKEEN ARTEA

Honezkero nahikoa zapuztuta
dagoela dio, eta bera beste men-
de batekoa dela, XX.ekoa. Mende
horren benetako muga zein den
zehaztu du: Interneten agerpe-
na. Ez du batere gustukoa globa-
lizazioak artera ekarri duen alda-
keta, horregatik kokatzen du
bere burua aurreko garaian. Bir-
tualtasunaren aurrean, «arte
ukigarria» aldarrikatzen du: 1:1
eskala, artistak bere obra egoki
uste duen neurrietan eta ikusi
beharreko moduan aurkeztuta,
alegia. Internet bidezko erakus-
ketak «miaketa lizunak» begi-
tantzen zaizkio, obra mireste-
ko izan ezik, beste edozertarako ba-
lio dutenak; esate baterako, ikus-
lea engainatzeko. «Obra bat ikusi
nahi baduzu, joan bertatik berta-
ra ikustera edo, bestela, har eza-
zu haren kopia bat, baina 1:1eko
eskalan, artistak obra egiaz sortu
duen bezala».

«Huts egin» dion beste kontu
bat artearen kudeaketa publikoa
da. Gasteizko Artium jarri du
adibide. Museo horren urteurre-
na dela-eta egin berri duten era-
berritzea ondo iruditzen zaiola
dio, baina bere zalantzak ditu
horrek artistengan, bereziki Ara-
bako edo euskal artistengan, era-
ginik izango ote duen. Morron-
tza hutsa iruditzen zaio, esate
baterako, Arco Arte Garaikidea-
ren Nazioarteko Azokara eroste-
ra joatea. Museoen arduradunen
funtzioa artisten estudioak bisi-
tatzea dela dio, ez «Gortera» joa-
tea. «Lehenengo jakin beharra
daukate inguruan zer dagoen».

Bestetik, arte garaikideko mu-
seoak klonikoak dira, Iñakiren
iritziz. Artista berberen obrak
erakusten omen dituzte, «joera»
baten barruan sartzen direnak.
Eta astakeria iruditzen zaio arte-
an joeraz hitz egitea, arteak ez
bailuke moden arabera funtzio-
natu behar. «Lehen eskola zena
orain Interneten topatzen den
joera bihurtu da. Globalizazioak
endogamia estilistiko nabarme-
na ekarri du. Batzuek estilo pro-
totipo bat fabrikatzen dute, arra-
kasta bermatuko duena, eta



Ororen gainetik, egindako obrarekin pozik egotea du helburu. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

beste askok horri jarraitzen diote arrakastaren bila; saltzeko, alegia». Dioenez, hainbat artistak estilo berarekin produzitzen dute munduko mutur batean eta bestean, kontzeptu berberetatik elikatuta.

Museoen kudeaketaren kritika utzi gabe, artea espektakulu, zirku-ikuskizun bihurtu dutela dio. «Museoek parke tematikoak ematen dute, dena kabitzen da, obrei begiratzeaz gainera, zuzueko ekitaldiren bat, *ad hoc* musika... ikuskizun sorta oso bat eskatzen da». Jendea erakartzeko, bisitariak izateko, denak balio omen du. «Hori da helburua, horrek du garrantzi osoa, bisitari kopuruak», eta hori museo publiko batean onartezina dela uste du. Horrela jendea erakartzea engainua dela uste du: «hona etor daitezela, amuarekin argazkia egin eta gero barrura sar daitezela, nahiz eta gero beharbada jende horrek pentsatu: 'baina nora sartu naiz?'». Halaber, uste du artea preziazteko ezagutza

batzuk beharrezkoak direla, arlo guztietan bezala. «Futbolzaleak ere gutxienez futbolaren arauen berri jakingo ez balu, aspertu egingo litzateke. Eta jendea futbolaren arauak ikasteko gai bada, seguru badela beste zerbaite-nak ikasteko ere. Eta horrekin ez naiz eskatzen ari jende guztia futbolera joan dadila, ezta jende guztia museora joan dadila ere, baina norabait zozazenean, nozioen bat izan beharko duzu ikusiko duzunaren gainean».

ARTISTA, LIBREA

Beti inkonformista izan dela dio Iñakik, eta argi hitz egitea gus-tuko duela, honezkero irakurlea ohartuko zenez. Ez omen du inoiz lehena izateko helburua

«Gutxiago izan dugun garaian altruistagoak izan gara. Gaur ez da ia halakorik existitzen». Guztiaren truke dirua eskatzen dela dio. Berak norberaren errealizazioan sinesten du

Astakeria iruditzen zaio artean joeraz hitz egitea, arteak ez bailuke moden arabera funtzionatu behar. «Lehen eskola zena orain Interneten topatzen den joera bihurtu da»

izan. Ororen gainetik, egin duen obrarekin pozik egotea bilatzen du, «salmenten eta moden gainetik». Horregatik, tristeia iruditzen zaio artistak baldintzak onartzea. «Artistak libre izan behar baitu, eta berak jarri behar ditu baldintzak. Dirudienez,

museoen zuzendariei hori ahanzten ari zaie», dio. Museo publikoez ari da artista gasteiztarra; «jakina, arte galeria pribatuak nahi dutena egin dezake; nahi badute, Madonna eraman dezatela, niri bost

axola dit, baina museo publikoetan erabilitako diru publikoaz ari gara».

«Arte munduko kapitalismora iritsi gara», jarraitu du Iñakik,

«ekoitzi egin beharra dago, artistari bere *tempoa* utzi gabe». Ekoizpen kapitalistarenaz besteko *tempoa* omen du artistak, baina nolabait kontsumorako ekoizpena behartzen dutela, kontsumo azkarrerako, sormena hutsaren hurrengo bihurtuta, berehalako arrakastaren bila. «Arte hotzak» eta honek erabiltzen dituen teknologia berriek eskulanaren bukaera dakartela dio, penaz.

Gonzalez-Oribek maiz aldatzen du obra sail batetik bestera, agortu egiten zaizkiola uste baitu, bide berriak jorratu beharra sumatuta. Arriskatu egin beharra dagoela dio, eta horren adibide txiki gisa jartzen du 2010ean Gasteizko Arte Eskolan egin zuen erakusketa, «Siete puertas fuera de quicio» izenekoa. «Orpotik ateratako zazpi ate» izan liteke haren itzulpena, edo «beren onetik ateratako zazpi ate». Biek balio dute. Erakusketak dadaismoaren *ready made* delakoa gogorarazten zuen, baina obrak ez ziren bat-bateko bulkadaren ondorio, baizik eta alde z aurretik ondo hausnartutako «kontzeptu objektualak», Javier Hernandez Landazabal pintorearen hitzetan. Honek, erakusketa haren aurkezpenean ohartarazi zenez, Gonzalez-Oriberen obrak «bere osagarri bisual saihestezina nabarmenduta, lengoaiarantz kulunkatuz doa». Zazpi ate haietako batek, egurrezko ate arruntak, aldabaren gainean Jesusen bihotz bat zuen, eta izenburua, «Atea».

Inkonformista da Iñaki, baina izaera hori ez du umorearekin eta ironiarekin bateraezina. Bere obran nabari da, baina baita berarekiko tratuan ere.

Bere proiektuen artean, aurreikusita dauka poesia bisualeko erakusketa bat Gasteizen, Brennan Duarte artista komisario izango duena eta gauzak ondo bidean datorren urtean ikusgai egongo dena.

Iñaki Gonzalez-Oribe, XX. mendeko artista. Konformagaitza, baina umore onekoa eta hiztun atsegin eta oparoa. •

Xabier Izaga Gonzalez



Ana Elozegi Serna
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Bizitzaz blai, gazteen eta abiaduraren arteko harremana hizketagai

Bizitzaz Blai egitasmoa Erre-
zilgo Udalaren eta Harre-
manak Hezkuntza Elkar-
taren arteko elkarlanaren
fruitua da. Bertan profesio-
nal askok parte hartu dute;
ertzainek, anbulantzietako ardura-
dunek, aldundikoek, suhiltzaileek... Eta
egitasmoaren gidaritzapean Saiaz-eko
gizarte zerbitzuetako teknikari Elena Ri-
kondo egon zen nagusiki.

Oraingo honetan Bizitzaz Blai egitas-
moa Azpeitian kokatu behar dugu, Az-
peitiko Udaleko gizarte zerbitzuak abian
jartzera doazen egitasmoan txertatzeko
asmoz. Asteon testigantza saioa izan da
eta ondoren ikasle eta gurasoekin saio
ezberdinak burutuko ditugu. DBHko lau-
garren mailako eta Batxilergoko ikasleek
parte hartuko dute, baita horien guraso-
ek ere. Lanbide Heziketako ikasleek ere
hartuko dute parte.

ZER DA LANDU NAHI DUGUNA...

Bizitzaz Blai egitasmoaren bidez gazte eta
haurren artean indarrean dagoen masku-
linitate ereduak eta trafiko istripuek du-
ten lotura aztertu nahi da. Proiektuaren
helburu nagusia da gazteak ohartzeara
abiadurak duen arriskuaz, eta kontziente
izatea mutil zein gizon izateko hainbat
modu osasuntsu daudela.

ABIADURAREN ARRISKUA

Badaude hainbat motibo auto edo moto is-
tripuak maskulinitate ereduarekin lotzeko:
Egitasmoa Azpeitian kokatzen dugu
mutil gazteek agertzen duten maskulini-
tate eredu oso lotuta dagoelako arriskua-

rekin, abiadurarekin, auto bizkorrekiko
zaletasunarekin... Azken finean, ausardia
erakutsi beharrekin.
Egitasmoaren helburu nagusia preben-
tzioa izanik, ikasle eta gurasoekin lan egi-
tea proposatzen da. Ikastetxe bakoitzean
DBHko laugarren mailako eta Batxilergo-
ko lehen eta bigarren mailetako ikasleek
parte hartuko dute.

MASKULINITATEA GURE JENDARTEAN

Azken urteotan, arreta handia eskaini
zaio maskulinitatearen azterketari gi-
zarte ikerketaren esparruan. Genero
ikerketen ikuspegitik hainbat unibertsi-
tatetan maskulinitatearen inguruko
ikerketak egiten ari dira, eta horren in-
guruko lan-lerroak ere sendotzen eta in-
dartzten. Era berean, herri mugimen-
duen eta instituzioen eremuan, hainbat
ekintza sustatzen ari dira, ziur asko, so-
natuenak gizon-taldeak edo gizonezko-
en kontzientzia-taldeak lirateke.

Indarrean dagoen ohiko ereduaren
arriskuarekin bat abiadura da, eta kasu
konkretu honetan abiadura azkarraren za-
le izatearekin lotzen den ausardia ere bai.
Nerabezaroan, 16 urtetik aurrera, mutil
izatea ausarta izan beharra bihurtzen de-
nean, autoan edo motoan azkarren ibil-
tzen dena edo *tronpoak* egiten dituen da
ausarta, arrakasta duena, eta hori datuek
frogatzen dute.

2016KO TRAFIKO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK EAE-N

• Auto istripuetan inplikazioa izan dutenak:
Emakumeak: %23,8 (2.662)
Gizonak: %76,2 (8.508)

• 16-24 urte artekoak:
Emakumeak: 128
Gizonak: 870

• 24-44 urte artekoak:
Emakumeak: 505
Gizonak: 3.983

• Istripuetan hil direnak:
Emakumeak: 6
Gizonak: 38

(Datuak Eusko Jaurlaritzako Trafikoa.eus
web orritik jaso dira)

GURASOEI ZUZENDUTAKO HITZALDIA

Ikasleekin hasi den lanari jarraipena
emateko, beraiekin egunero dauden per-
tsonekin edukiak nola landu ditzaketen
ikustea garrantzitsua da.

Atal horretan aipatzen den moduan,
eragile horiekin lantzeko informazioa es-
kaintzeaz gain, ikasle edo seme-alabekiko
enpatia sortzen erakustea oso garrantzi-
tsua izango da.

Gurasoek eta irakasleek gaiaren ingu-
ruan duten informazioa ere landuko da,
horretarako, harremana oso garrantzi-
tsua izanik. Hau da, Harremanak Hez-
kuntza Elkarteko teknikariek eskaintzen
dieten informazioa beraientzat baliaga-
rria suerta dadin, euren zalantzak eta
galderak argitu beharko dira. Hori dela
eta, elkarriketa eta komunikazioa erraz-
teko teknika parte hartzaileak erabiliko
dira.

Denon artean bidea egitea errazagoa
delako, BIZITZAZ BLAI!!! •


Auto istripuetan inplikazioa izan dutenak

	2012		2013		2014		2015		2016	
	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon
AZPEITIA	31	93	29	86	41/1	94	27	73/3*	33	69
AZKOITIA	33	91	17	83/1*	21	50	31	69	20	59
ZESTOA	37	92/1*	61/2*	146	53	141	36	91	32	89

(*) Auto istripuetan hildakoak

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. KUTXATEKA. FOTOCAR FUNTSA

1920. URTEKO ZAMAKETARIEN GREBA PASAIAN

1920. urteko urtarrilaren 15a. Estatuko zenbait egunkariaren azalean Pasaiaiko portuko zamaketariak lanera bueltatu zirela agertzen zen. Zamaketariak aste pare bat zeramatzaten greban, %10eko soldata igoera eta beren lan baldintzak hobetzea eskatuz. Pasaiaiko zamaketarien grebarekin denboran bat eginez, Bilboko portuan ikatza deskargatzen jarduten zuten emakumeek ere protesta betean ziren. Pasaiaiko Portuko batzorde patronalak langileak kontratatu zituen greba hausteko asmotan. Patronalak, gobernadore zibilak, Guardia Zibilak eta Madrilgo komunikabide batzuek "langile askeak" zirela zioten; grebalarien hitzetan, baina, eskirolak ziren. Zamaketariak manifestazioa egin zuten Pasaiaiko portuan eskirolen kontratazioa salatzeke eta Guardia Zibilak, zaldietan igota, tiroka sakabanatu zituen 400 manifestariak. Patronalak eskirolak kontratatu zituen "Ollargan" izeneko baporea deskargatzeko eta egun horretan bertan Guardia Zibilak portua erabat hartu zuen. Bitartean, negoziazio mahaia eserita zegoen, gobernadore zibilak eta Gipuzkoako Aldundiak zuzenduta. Goiko irudia 1920. urteko urtarrilaren 14an jaso zuen Ricardo Martinek. Guardia Zibila ikusten da grebalariak kontrolatzen.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



CAMILLEREN BIDEA

Azken hartzaren oinatzei segika

Sasoitik sasoirra, azken urteetan gero eta mendizale gehiagok egiten dute Camilleren Bidea, Mendebaldeko Pirinioetako paisaia ikusgarrienetakoak zeharkatzen dituen xendra.

Eta gainera: Lawrence Arabiakoak zaldi gainean trostan zeharkatu zuen Wadi Rum basamortu gorria • Hollywoodeko izarren atzetik ibiliko gara • Punta Begoñako galerien sekretuak...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

